

Aikor!

txorierriko aldizkaria

Goi-Alde, 40 urte dantzan





Argitaratzailea: TOTOAN,
Txorierriko Euskara Elkarte
Federazioa
(Lagatzu, Zorritzeta, Arrekikili,
Tximintx)
Tf.: 94 452 34 47

e-posta: aikortxori@yahoo.es

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Fernando
Larrondo, Jose Angel Mentxaka,
Alberto Legarreta, Gaizka Eguskiza,
Mari Tere Onaindia, Amagoia
Guezuraga, Belen Gana, Pospolin eta
Aritz ta Nagel.

Kolaboratzaileak: Iñaki Bilbao,
Juanxu Bilbao, Lurdes Lasuen, Asier
Oruetxebarria, Oihana Astobeta,
Maripi Agirre, Ixone Zubietza, Gabriel
Etxebarria, Latsarizekoak,
Bestorrene, Pospolin, Bizkaiko
Dantzarien Biltzarra eta Juan Luis
Goikoetxea.

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la
Cuadra, Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi

Banaketa: Arantza Atxutegi, Gaizka
Eguskiza

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-
9322

Aikor! aldizkariak ez dau
bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen edota
eritxien erantzukizunik.



Eusko Jaurlaritza



Bizkaiko Foru
Aldundia
Kultura Saria

diruz lagundutako aldizkaria



22 Aldekoneko jaiak



26 Lur maitea



11 Julian Iantzi



13 Martin Mac Gragh



20 Txinatik etorritako printzesa



14 Iñigo Lazaro

AURKIBIDEA

4Eritxia **5**Gutunak **6**Laburrak eta albisteak **10**Nagore Urkiza
eta Esther Cendagortagarza **11**Gurean izan da... Julian Iantzi
12Gazteen txokoa **13**Gaztea eta... Martin Mac Gragh
14Iñigo Lazaro **16**Goi-Alde dantza taldea **20**Txinatik etorritako
printzesa **22**Aldekoneko jaiak **24**Mobbing **26**Lur maitea
28Baserri mundua... Goio Garcia **30**Musika **31**Txorierri
ezagutu **32**Sukaldaritza **33**Denborapasa **34**Agenda

Azkenean uda!



IXONE ZUBIETA

(Tximintx Euskara Elkartearen koordinatzailea)

Heldu zaigu, urte osoan itxaroten egon eta gero. Iazko udari irailaren 21ean agur esan genionean urrun ikusten genuen ekaina, baina hemen daukagu berriro ere.

Ikasleak batez ere pozik egongo dira egun hauetan, opor luzeak dituztelako, baina beste asko eta asko ez gara hain pozik egongo, oraindik lan apur bat egitea tokatzen zaigu eta. Hala ere, egunak luzatu egin dira eta dituen 24 orduak hobeto aprobetxatzeko aukera dugu. Horrela, lanorduetatik aparte, gustuko ditugun ekintzak egiteko astia ere badago.

Oporrak hartzean, jendeak bidaiatxoak ere egiten ditu, garai hau ona izaten baita kanpoko herriren bat ezagutzeko, beste kultura batzuetan murgiltzeko... Garrantzizkoena burua eguneroko estresetik baztertzeta da.

Baina kanpora joaten ez denak ere badauka non aukeratu: hondar-

tza, mendia, terrazak, izozkiak, jaiak... Denak daude prest!

Jaiak esan dut bai, izan ere maiztzean San Isidroekin hasi ginen eta hortik aurrera asteburu guztietan dugu herri ezberdinetako jaietan parte hartzeko aukera. San Isidro, Pazko jaiak, Santo Tomas, San Antonio, San Juan, San Pedro, San Fermin... eta horrela San Migel edo apur bat luzatu ezker San Martinetara arte, ia-ia Santutegi osotik pasatuz.

Elizan gero eta herritar gutxiago egoten dela esaten da, eta batez ere gazteak gero eta urrunago daudela Santu eta elizako asuntuetatik, baina udako Santutegia baietz ia-ia osorik ezagutu! Eta batez ere, Santu horren jaia inguruan ospatzen denean. Lasai egon daitezke elizaburuak, Santutegia behintzat luzaroan ez da galduko eta!

Era guztietako jaiak aurkitu daitezke, eta pertsona bakoitzak nahi duen bezala parte hartzen du horietan. Batzuk egunez gozatzen dute, besteek gauetz, beste batzuk ausarta-

goak izan eta egunez hasi eta gauera arte luzatzen dira. Baina batzuek goza dezaten beste asko lanean egoten dira, eta ez jaiak di-

ren artean bakarrik, prestaketa kasu askotan ia urtebete lehenagotik hasten da eta. Atzetik dagoen lana sarritan ez da ikusten. Meritu galanta, dohainik lan egin eta gustura gainera! Horiek bai santuak horiek!

Santu ala ez Santu, fededun ala fedebako, jaiak eta uda ahalik eta ondoen pasatzea gomendatzen dizuet, momentu atseginak aprobetxatuz, konturatu orduko iraila datorkigu eta!

“Lasai egon daitezke elizaburuak, Santutegia behintzat luzaroan ez da galduko eta!”

Elaiak eta baserriak



GABRIEL ETXEBARRIA

(Lagatzu Euskera Alkartearen kidea)

Elaiak hegazti migratzaileak dira. Afrika aldetik Europara etortzen dira udabarrian eta Afrikara bueltatzen dira udagoienean. Gure artean dagozan bitartean kabiak egin, eta kumeak hazten dabez bertan. Are gehiago, jaio diran tokira itzuli eta aurreko urteko kabietan edo inguruan hazten dabez kumeak.

Txorierriko baserrietako portaleetan eta tejabanetan egin dabez elaiak kabiak eta errespetuz tratatu doguz txori horreek. Horrelaxe izan da beti, baina gauzak asko aldatu dira eta orain ez da elairik ikusten baserrietako inguruetan. Zer pasatu da?

Ez dogu txori horreen ohituren ganeko azterketa sakonik egingo, baina gure ingurua asko eta arin aldatu dala aitatu behar da. Zamudion, adibidez, azkeneko urteotan 22 baserri (bi aurten) desagertu dira eta etxe ondoko terrenoetan pabilioiak, bideak eta abarrak eraiki dabez, herriko lurrik onenak okupatuz. Egoera horrek zarata, poluzinoa, trafikoa eta zementoa ekarri deuskuz, besteak beste. Eta, antza, elaiak ikaratu ditu eta txoritxoek beste lekuren bat topatu behar izan dabe, euren kabiak egiteko.

Geroari begira, gauzek ez dabe hobera egingo; alderantziz, txarrera: bide gehiago, trafiko gehiago... Eta zertarako Tokiko Agenda 21? Eta elaien moduan, kabia beste toki baten egin beharko dogu baserriarrek eta baserri inguruan bizi gare-nok?

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, Aikor!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aretxalde 1, 48196 Lezama edo aikortxori@yahoo.es

Filosofiaren minbizia

Espainiako Gobernuak aurkeztu duen Hezkuntza Lege Organikorako aurreproiektuaz hitz egin nahi nuke lerro hauetan: minbiziak hil egiten duen moduan, Filosofia, Arte Ederrak, Magisteritzako hainbat adar... hil egin nahi dituen egitasmoaz. Hori oinetako behatz puntetan igaro da iritzi publikoaren pasabidetik, PSOEek ederki asko planifikatutako estrategia aurreproiektuaren eta onarpen hipotetikoaren datei kasu egiten badiegu: ikasle-irakasleen azterketari eta opor garaia, alegia.

Funtsean, DBHko etika eta batxilergoko bigarren mailan ematen den filosofia-ren historia desagertu egingo dira, lehen mailan aukerako gai moduan utzi nahi delarik, bai zientzietan hala nola humanistikoa ere. Asmoa da horien ordezturistik eta politologoek emango duten “Etica ciudadana” ezartzea. Aldaketa hauen itxura aurrerakoiaren azpian bi faktoreen hausnarketa egin du PSOEek, dudarik gabe: hautazko gaiek duten pisu eskasa —irakaslearen arabera—, eta ikasgai hauek martxan jartzeko beharrez-

koa den gutxieneko ikasle kopurua. Egia esanda, denbora kontua iruditzen zait batxilergo zientifikoa, baina onartezina da filosofiari gabeko humanistikoa.

Nire ikasketen inguruko galderen erantzunek jaso ohi dituzten aurpegiek, filosofia ematen duen ikuspegi kritikoak gizarte honetan duen zeresan falta tristem gogorarazten didate maiz. Honek ez du esan nahi filosofoek ikuspegi honen monopolioa dugunik, ez eta filosofia nonbait galdutako izpiritu kritikoa lau haizetara zabaltzen duenik ere. Baina jakintzak helburu gisa duen gai bat, bere burua jakinduriaren jabetzat duen beste bat baino mesedegarriagoa iruditzen zait. Zer-nolako askatasun-baloreetan hezi behar dituzte juristek eta politologoek gazteak? Giza baloreen erlatibismo total eta arriskutsuegi baten erori gabe, moral, justizia, gizakia, etika... kontzeptuen gainean lau urtetako eztabaida aske batek nahikoa kapazitatzen gaituela deritzot, gai hau guk geuk emateko behintzat.

Ez dut asmo gaiztorik salatu nahi, oso baliagarriak diren printzipioak daude

Lehen Munduaren zutabe moralizat ditugun eskubide unibertsaletan. Baina ez gaitzezen hain idealistak izan, hauekin batera etorriko dira gizarte kapitalista hau martxan mantentzen duten dogma kontsumistak. Gobernuak, irabazten duten dirua gastatzeko denbora justua duten ingeniariak nahi ditu, nik ez dut ezer haien aurka, baina eman ditzagun aukera gehiago.

Ni neu pixka bat nazkaturik nago filosofia etengabe planteatzen dizkigun irtenbiderik gabeko galdera labirintikoe-tan ibiltzeaz, baina sekula ez naiz damutu karrera hau hautatu izanaz. Ume txikiek ba omen dute “eta zergatik?” galderaren garaia, filosofoegi direnak galdera honetan gelditu direla ematen du, baina kontzientzia diot gizarte honetako banako bakoitzak bere buruari nahiz gizartearen osotasunari mesede egingo liokela kuriositatearen adinera sarriago bueltatuko balitz, jarrera kritiko zein objetiboago batera bultzatzen gaituen adinera.

Imanol Alvarez

Epaiketa gehiagorik ez izateko borrokatu behar dela dio Meñikak

Zamudioztarra 18/98 sumarioaren barruan epaitu dute Euskal Herriko beste gazte batzuekin batera, eta 2 urte eta 8 hilabeteko espetxe-zigorra bete beharko du

Auzitegi Nazionalak Euskal Herriko 28 gazte auzipetu zituen ETArekin laguntzaile izatearen akusaziopean. Garzonaren tesia-
ren arabera, ETA, KAS eta EKIN egituraren barruan daude Jarrai, Haika eta Segi taldeak. Epaileek horratik ez dituzte gazte erakundeok ETArekin lotu, baina bai ebatzi dute zilegi ez diren elkarrekin jardun dutela; horregatik auzipetuetatik 24 laguni ezarri dizkiete espetxeratzeko zigorrak: batzuei, 2 urte eta 5 hilabete, eta beste batzuei, 3 urte eta 5 hilabete. Horrezaz gainera, egunero 5 euroko isuna ordaindu beharko dute 20 hilabetean. Beste lauei absoluzioa eman diete.

Gazte gehienek ez dute kondenarik beteko, dagoeneko bete dutelako kartzelan zigor hori. Hiru gaztek, hala ere, espetxera sartu beharko dute zigor osoa bete arte. Ibon Meñika zamudioztarra horietako bat da: 3 urte eta 5 hilabeteko espetxe-zigorra ezarri zaio, eta, aurretik kartzelan 10 hilabete eman zituenez, 2 urte eta 8 hilabete bete beharko ditu orain.

Meñikaren ustez, puntu bi argi gelditu dira sententzia horrekin. “Alde batetik, gazte moduan antolatze eskubidea urratzen jarraitzen digutela eta, bestetik, Euskal Herriko hainbat erakunde eta taldeek egindako presioak eragin zuzena izan duela epaileen erabakian”. Gazte honen arabera, honetan ikusten da garbi: fiskalak 10 urteko espetxe-zigorra eskatu zuen eta



epaileek urte gutxiago ezarri dizkiete; beste alde batetik, hasiera batean 33 gazte auzipetu ziren, baina azkenean 24ri baino ez zaie kondena ezarri. “Indarra daukagu eta beste epaiketa batzuk etortzen diren heinean jarraitu behar dugu borrokatzen, oraingoan lortu dugun helburua edota beste bat lortzeko. Are gehiago, inongo frogarik gabe epaitu eta kartzela-zigorra ezarri zaigu, eta gurearen moduko beste epaiketa gehiagorik ez egoteko lan egin behar dugu”.

Familien atsedenerako egoitza irekiko da Ola zentroan

Irailean, BBK-k egoitza bat irekiko du Sondikako Ola zentroan, urritasunen bat duten pertsonen familiek atsedeen har dezaten. Gaur egun, Euskadin beste inon ez dago halako egoitzarik. Bertan zerbitzua emango zaie bai urritasun intelektuala duten pertsonen, eta bai haien senitartekoei ere.

Batzuetan gaitza izaten da halako pertsonen behar duten atentzioa ematen —zaintzaileak gaixoaldiak, ezustekoak, leku-aldaketak, bidaiak...—; horregatik zainketaz arduratzen diren familiei atsedeen hartzeko aukera eman nahi die BBK-k. Egoitzan 260 egonaldi eskainiko dira; egonaldiok egun batetik urtebetera bitartekoak izango dira.

Familien atsedenerako egoitzarekin batera, zaharrentzako eguneko zentroa irekitzeko asmoa dauka BBK-k Olako instalazioetan. Zentro horrek aisia eta laguntza sozialeko zerbitzuak eskainiko dizkie lan babestuko lanpostu batean lan egin ondoren erretiratzeko pertsonen. Horrezaz gainera, eskola-adinetik helduarora bitarteko trantsizioaren inguruan orientatzeko zerbitzua emango zaie familiei. Zerbitzu horren bidez, baliabide publiko, etxebizitza, aisia eta lan babestuari buruzko informazioa jaso ahal izango dute.

Beste alde batetik, eskola bukatu eta lan babestuan sartzearen dauden gazteentzat zentro bat jarriko dute, lanari ekin aurretik bertatik igarotzeko; zereginetarako lantegia eta buruko gaixotasunak ikertzeko unitate bat ere kokatutako dira bertan.

Folklore jaialdia Sondikan eta Derion

Uztailaren Portugaletako Folklore Jaialdia egingo da, eta bertan parte hartuko duten taldeak Txorierrin ere izango ditugu. Horrela, bada, Hegoafrika eta Futunako dantza taldeek ikuskizuna eskainiko dute uztailaren 22an, 22:30ean, Sondikako Goronda Beko udal kiroldegian. Hungariako Pendzsom dantza taldea Derioko Aldekone auzoan izango da uztailaren 31n, 12:00etan.

Lezamako Udalak 392.527 euro inbertituko du hainbat proiektutan

Garaioltza auzoko ur-hornidurako sarea berritu, eta skate pista eta eskolako aterpea egingo dira, besteak beste. Beharrak udan hasi, eta udazkenerako amaituta egongo direla uste da.

Egitasmorik garrantzitsuenetarikoa bat Garaioltzako ura banatzeko sarea berritzea izango da. Horretarako, Alkirri ur-biltegiaren eta Aretxalde auzoaren arteko hodia kendu eta beste bat jarriko da. Bertan dagoen hodia zementu-zuntzekoa da eta haren ordeztu burdinurtu nodularrezkoa jarriko da, diamentro handiagokoa. Horrezaz gainera, ureztatze-ahoak ipiniko dituzte etxebizitza asko dauden lekuetan, baita suteak amatzeko ahoak ere. Proiektu horren bidez, Udalak helburu bi lortu nahi ditu: alde batetik, ur hodien materialen kalitatea hobetzea, eta, bestetik, herrian ura banatzeko sarearen funtzionamendua hobetzea. Lanak egiteko aurrekontua 205.440 eurokoa izango da.

Etxebarria parkean skatea egiteko pista jarriko da, eta Udaletxearen atzealdean, umeentzako jolas-parkea. “Gero eta ume eta gazte gehiago daude herrian eta gurasoek haien zainketa eskatzen dituzte”, azaldu digu Luis Ramon Alvarez alkateak. Proiektu horiek 57.976 euroko aurrekontua izango dute eta Bizkaiko Foru Aldundia-
ren laguntzarekin egingo dira.

Beste alde batetik, umeentzako aterpea eraikiko dute eskolan. Alkateak esandako-



aren arabera, proiektu bi ziren bertan egitekoak: bata gimnasioa handitzea eta bestea psikomotrizitate-gela berria jartzea. “Lehenengoa egiteko ardura Eusko Jaurlaritzarena da; psikomotrizitate-gela egitekoa, Udalarena. Proiektuok biak batera egin behar dira, baina Eusko Jaurlaritzak ez dauka gimnasioa aurten handitzeko asmorik, eta ondorioz, guk ere ezin dugu psikomotrizitate-gela egin. Horren ordeztu, aterpea eraikiko dugu eskolan, umeek bertan jolastu ahal izateko”. Eraikitze lanetarako 57.622 euroko aurrekontua izango da.

Azkenik, herriko bideak konponduko dira eta bideko trangoak kentzeaz gain, asfalto berria botako dute. Horretan 71.489 euro inbertituko dira.

Uritarra Erregionaleko I. mailara

Uritarra Larrabetzuko kirol taldea erregionaleko I. mailara egin du gora denboraldi honetan. Ekainaren 11n azken partida Ortuellaren aurka jokatu, eta bana berdindu zuten; hala ere, urte osoan lortutako puntuek mailaz aldatzeko aukera eman diote futbol taldeari. “Orain hiru urte zuzendaritza berritu zen eta helburu bi jarri genizkion geure buruari: alde batetik, futbol zelai berria egitea eta, bestetik, kategoriaz igotzea. Biak lortu ditugu eta oso pozik gaude”, esan digu Tomas Undabarrena presidentek.

Ume saharrekiko atxikimendua

Uztailaren 9an eta 11n, 300 bat ume saharar Loiuko aireportura helduko dira, udako oporrak Euskal Herrian emateko. Aireportutik Loiuko pilotalekura eramango dira, eta gosaltzen emango zaie bertan. Aurreko urteetan gosariaren ardura Loiuko Udalak eta elkarte batzuek hartu zuen, baina aurten Kaiku, Lechera Asturiana, Zahor, Mildred eta Heugoba enpresek hartu dute ardura hori. “Jendea ume horien egoeraz kontzientziaztea oso inportantea da. Gainera, 40 orduko bidaia egiten dute eta enpresa horiek inplikatzeko eskertzekoa da”, esan digute Irune Dañobeitia alkateordeak eta Etor Irazola zinegotziak.

Herriko banderak banandu dira loiuztarren artean

Loiuko banderak 15 urte bete ditu aurten, eta Udalak bandera bana bidali du loiuztarren etxetara. Guztira 800 eman dira, “eta herriko jaietan balkoi guztietan ipintzea gura genuke”, azaldu digute Udaletik. Banderarekin batera, gutun bat bidali zaie herriarrei, eta bertan Loiuko armariaren eta banderaren gaineko azalpenak ematen dira.

Lezama Bizirik koordinakundea sortu da



Ekainaren 18an, Lezama Bizirik plataformaren jendaurreko aurkezpena egin zen. Lezamako zenbait herritar eta elkartek plataforma hori sortzea erabaki dute, “Bilboko Metropoliko Lurralde Plan Partzialak (LPP) behin betiko onarpena jasoz gero, plan hori hondamendia izan daitekeelako gure herriaren etorkizunearako. Eraso horri aurre egiteko osatu dugu koordinakundea”.

Plataformako kideek aipatutakoaren arabera, Lezama, Txorierri eta Bilboko Metropoliko ingurunea nahiko zigortuta dago eta LPPk kalte gehiago egingo dio.

Eraso horrek ondorio zuzenak izango ditu herritarren bizi kalitatean, baita Lezama eta Txorierriko balio natural eta kulturaletan ere. “Bizkaiko industria guneko erreserba estrategikoa herrian bertan kokatu nahi dute eta horren atzetik, kamioi-aparkaleku eta ekimen industrialetarako 1.200.000 m² lur kalifikatzeko asmoa dago”. Bertan salatu zuten horrek urte gutxian hondatuko zuela bai Lezama eta bai Txorierri, eta eragotziko duela kalitatezko bizilekua izatea eta eskualdearen nortasun kultural eta historikoari eustea.

Negozio Ideien I. Lehiaketa

Txorierriko Behargintzak Negozio Ideien I. Lehiaketa antolatu du, herritarrek jakinaraz dezaten, euren iritziz, zein negozio mota falta diren Txorierri. Era horretan, Behargintzako Ekintzaileen Zerbitzuak Txorierriko berreragite ekonomikoa sustatzeko asmoa dauka, lehiaketan parte hartuko duten negozio-ideiak zabalduz eta negozio berriak sortuz. Lehiaketan parte hartzeko orriak udaletxeetan eta dendetan eskura daitezke. Ideiak aurkezteko epea uztailaren 22an amaituko da. Beste alde batetik, partehartzaileen artean hiru sari banatuko dira: egun bateko egonaldia, Laia hotelean, lagun birenztzat; afaria, lagun birenztzat, eta, azkenik, 75 euroko txekia.

Goitioltzako jaiak 05

Uztailaren 9an eta 10ean, Lezamako Goitioltza auzoko jaiak ospatuko dira. Jai batzordeak hurrengo jai egitarau hau prestatu du:

–Uztailak 9, zapatua

08:30: Ehiza Txakurren XII. Lehiaketa.

10:00: Txupinazoa. Txakolin ibilbidea: Torre – Larrabeiti – Apraiz.

13:00: Omenaldia Amaiari: txapela, aureskua.

15:00: Bertso-bazkaria.

16:00: Ehiza Txakurren Lehiaketa Lokala.

19:00: Herri kirolak.

23:00: Gau pasa, Tapia ta Leturia eta Trikiotz taldeekin.

–Uztailak 10, domeka

10:00: Bakailao eta tortilla txapelketa.

12:00: Txakolin dastaketa.

13:30: Bakailao eta tortillen aurkezpena.

16:00: Mus txapelketa.

17:00: Umeen jolasak.

19:30: Bertso saioa. Andoni Egaña, Jexux Mari Irazu, Xabier Silveira eta Unai Iturriaga.





Bertsolari gazteak Sondikako kultur etxean

Ekainaren 16an, Txorrierriko eskolen arteko Bertso Topaketak izan ziren Sondikako kultur etxean. Bertan 6. mailako 90 bat ikaslek hartu zuten parte. Bertan, ikasturtean ikasitako hainbat kantu abestu eta eurek asmatutako bertsoak botatzeko aukera izan zuten. Ekitaldia Bertsozale Elkartek antolatu zuen, Larrabetzu, Lezama, Zamudio, Derio eta Sondikako Udalek eta eskolek lagunduta.

Bertsozale Elkartek orain sei urte bertso-laritzaz eskola emateko proiektua jarri

zuen martxan Derio, Zamudio, Lezama eta Larrabetzuko ikastetxeetan, eta aurten Sondikakoek ere bat egin dute proiektuarekin. “Bertsolaritza beste ikasgai bat balitz bezala hartu, eta asteen behin ematen da. Asmoa da umeen artean bertsozale-letasuna zabaltzea eta euskararen erabilera sustatzea. Horretarako, hizkuntza ikas-teko modu berriak eta aberasgarriak erabiltzen dira. Sei urteren ostean, balantzea guztiz positiboa da”, azaldu digute elkar-tekoek.

Madril eta Salamancako artxiboak arakatuko dira Erandioko toponimia batzeko

Euskaltzaindiak eta Erandioko Udalak hitzarmen bat sinatu dute bertako toponimia batzeko eta arautzeko. Ikerketa Iratxe Lasak egingo du, eta Udaletxeko artxiboa ez ezik, Bizkaikoak, Madrilekoak eta Salamancakoak ere arakatuko ditu horretarako. Hitzarmenak Erandioko toponimoak eta herriaren ageriko hizkuntz paisaia normalizatzea du helburu. Toponimia bildu ondoren, mapa bat argitaratuko da herritarrek toponimoen berri izan dezaten.

Larrabetzuko saihesbidea inauguratuta

Ekainaren 20an, Jose Luis Bilbao Bizkaiko diputatu nagusiak Larrabetzuko saihesbidea inauguratu zuen. Orain arte herri erditik pasatu behar zuten auto asko ez dira honezkero herri erditik pasatuko. Udalak, gainera, herri-gunea oinezkoentzako gunee bihurtzeko asmoa du. Saihesbidea eraikitzeke beharretan 8,9 milioi euro inbertitu dira.

Garitano Realera

Gaizka Garitano derioztarrak hiru denboraldirako kontratua sinatu du Realarekin. Garitanok 1997an egin zuen debuta Athleticekin, baina ez zioten bertan jarraitzeko aukerarik eman. Geroztik, Lleida, Ourense eta Eibarko jokalaria izan da. Datorren denboraldian lehenengo mailan jokatzeko aukera izango du.

“Profesional asko daude mundu honetan, eta gu horien artean gaude”

Maiatzaren 14an eta 15ean, Davines enpresak Espainiako Estilismo Txapelketa antolatatu zuen Madrilen, eta Larrabetzuko Esther Cendagortagarzak (Galdakaoko Esther Cendagortagarza Ile-apaindegia-Estilista) eta Nagore Urkizak (Larrabetzuko Estetika eta Masaje Uras) bigarren postua eskuratu zuten bertan.

Testua / argazkia: Itxaso Marina

Nola animatu zineten txapelketan parte hartzera?

E: Davines enpresak ile-apainketarako kosmetika-produktuak saltzen ditu eta komertzial batek panfleto batzuk utzi zituen ile-apaindegian. Arauak irakurri, eta makillatzailea eraman zitekeenez, Nagoreri komentatu nion. Baietz joan! Baietz, ba!

Halako txapelketa batean parte hartu duzuen lehenengo aldia izan da...

Bai. Ez ginen inoiz gure lana jendaurrean erakusteko eszenatoki batera igo eta nerbioak dantzari genituen. Hala ere, ez ginen irabazteko asmorekin joan; zer egiteko gauza ginen jakin nahi genuen. Eta ez genuen hain postu ona lortzeko itxaropenik, txapelketa horietan oso maila handia

ausarta ere bai, Mariak ilea platino-koloreko horaila zuelako eta gaztaina kolorekoa jarri niolako. Eta kontraste hori izugarri gustatu zitzaion epaimahaiari. Ilea piko bi eginez ebaki, eta orrazkerarekin bat zetozen soineko beltza eta zapa-tak jantzi genizkion...

N: Nik ez nekien zein tindaketa egingo zuen Estherrek, txapelketan bertan

egin behar zelako, baina pista batzuk eman zizkidan: “Honen antza izango du”... Eta pista horietan oinarrituta, makillajea asmatu nuen. Hura apur bat fantasiakoa zen, baina edozein egunetan erabiltzeko modukoa. Aurpegian oso kolore naturaleko basea erabili nuen, eta laranja, zuriak eta lurrezko koloreak begietan.

Min ematen du bigarren postuan gertatzeak?

Lehenengotik hain hurbil izanda bai, izan ere, hamarren gutxigatik ez genuen irabazi. Gainera, irabazleari Florentzian ikastaro batzuk egiteko bidaia eman zioten sarritzat, eta Europako Txapelketan parte hartzeko aukera ere bai. Guri, berriz, ezer ere ez. Hala ere, oso esperientzia positiboa izan da, hainbat urte ikasten eta lanean ibiltzeak onura ekarri digula ikusi dugulako... Profesional asko dauden mundu honetan, eta gu profesional horien artean gaude.

Datorren urteko txapelketan parte hartzeko asmoa duzuela aipatu duzue lehen. Ideiaren bat?

Gauza batzuk ditugu buruan, baina ikusi-ko dugu. Txapelketarako prestaketak oso politak izan dira, eta haiengatik besterik ez bada ere, merezi du.

“Hurrengo urteari begira, maila altuegia jarri diogu geure buruari, agian...”

dagoelako. Hurrengo urteari begira, maila altuegia jarri diogu geure buruari, agian...

Zein lan aurkeztu zenuten?

E: Lanak “Calido resplendor” zuen izena, eta gure lagun batek (Maria Abad lekeitiarra) modeloarena egin zuen. Antolatzaileak emakume ateporral baten bila zebiltzan eta guk oso lan naturala aurkeztu genuen... Baina apur bat



Julian Iantzi, aurkezlea

“Jendearen istorioak interesatzen zaizkit”

Loiuko jaiek luxuzko pregonaria izan dute: Julian Iantzi ETBko aurkezlea. AIKOR! aldizkaria lesakarrarekin izan da solasean.

Testua: Itxaso Marina

La flecha amailla, El conquistador del fin del mundo, Basetxea... Abenturazko aurkezlea zara?

Abenturazko programa asko egin ditut, baina beste batzuk ere bai: Begia gose, erreportajeak, udako jaiak, galak... Zorte handia izan dut, oso lan ezberdinak egiteko aukera izan dudalako. Erregistro diferenteak erabili ditut eta hori oso aberasgarria da, nire ustez.

Programa horietako lehiakideek gorriak ikusten dituzte. Animatuko zinateke lehian aritzera?

Jendeak uste duen baino askoz esperientzia gogorragoa da: biziraupena, gosea, hotza, beroa, elkarbizitza, bakardadea... Baina bizi ahal duzun esperientzia bakarra dela esan dut beti, baita zure limiteak ezagutzeko aukera aproposa ere. Eta bai, parte hartuko nuke halako saio batean.

Eta zer da beharrezkoa saio horiek irabazteko?

Fisikoki ongi egoteak lagun dezake, hala ere, psikologikoki indartsu izatea eta elkarbizitzarako gaitasuna izatea ezinbestekoak dira, nire ustez.

Banakako lehia hasi da Basetxe Tabernan, zelan ikusten duzu emaitza?

Ez dakit. Hasiera batean, sexuen arteko lehia zen, baina gauzak aldatu dira orain... Giroa gaiztotu da nesken artean eta horrek eragina izango du. Guzti horrek Asierri egingo dio mesede, agian. Dueluetan ere sorpresak egon ahalko dira... *Basetxe Tabernak* ez dauka zer ikusirik beste *Basetxe* saioekin, baina badu bere mamia. Bukaera oso hunkigarria izango dela uste dut.

Mihizorrotzek Gran Hermano edo beste realityekin lotzen dituzte ETBko programa horiek. Badago ezberdintasunik?

Gran Hermano lehiakideek ez lukete Basetxean edo guk egindako realityetan iraungo... Sobera ongi bizi dira! (Kar, kar) Nik *Supervivientes*, *Aventura en Africa*, *La isla de los famosos* eta horrelako programekin lotuko nituzke gure saioak, hauek ere oso gogorrak direlako. Gurean ez da ezer faltsutzen, benetako esperientzia gogorra da, eta horregatik arrakasta duela uste dut.

“Gurean ez da ezer faltsutzen, benetako esperientzia gogorra da”

Lehen aipatu duzun moduan, hainbat genero landu duzu telebistan. Zeinetan ikusten duzu eroso en zeure burua?

Genero bakoitzak badu bere kontua eta guztiak oso gustura egiten ditut, baina dokumentalak eta elkarrizketak egiten oso eroso sentitzen naiz. Jendearekin harremanetan izatea gustatzen zait, haien istorioak interesatzen zaizkit.

Nola dago telebista munduan? Reality gehiegi?

Gai horrekin zalantzan nabil: jendeak eskatzen duena ematen du telebistak? Ala, telebistak ematen duena ikusten du jendeak? Nik telebista didaktikoagoa egingo nuke: informazio gehiago, errealitate ezberdinak aurkeztu...

Beste alde batetik, mundu honetan dena asmatuta dagoela uste dut: beste formatu orijinal batzuk hartu, egokitu eta kito.

Eta *reality* gehiegi? Agian, bai. Baina momentuko fenomenoak dira eta denboraren poderioz gauzak aldatuko dira...

Hala ere, Basetxearekin ez gertatzea nahiko nuke! (kar, kar)

“Reality’ak momentuko fenomenoak dira eta denboraren poderioz gauzak aldatuko dira... Baina ‘Basetxea’rekin ez gertatzea nahiko nuke!”

Basetxe saioak Iparragirre Saria 2003 jaso zuen, eta zuk Argia Saria 2005.



Moralezko txertoak dira sariak?

Bai, aurrera egiteko indarra ematen dizute. Baina ezin zaitu loak hartu, kanpoan gera zaitezkeelako despistatuz gero. Lanean ilusio bera dut beti, sariak jaso ala ez. Ahalik eta gehien disfrutatzen saiatzen naiz eta gakoa hor dagoela uste dut.

Zerekin etorriko zara hurrengoan?

Lanean jarraitu nahiko nuke. Hau oso mundu aldakorra da eta hurrengo proiektua zein izango den ez dakizu askotan... Ala egongo den! Dena dela, baditut gauza batzuk egiteko oraindik, eta bat berria izango da niretzat.

Txorierriko Gazteentzako Informazio Bulegoa

Informazio guztia lehiatila bakar batean

Testua eta argazkia:
Gaizka Eguskiza



Txorierriko Gazteentzako Informazio Bulegoa 2003an sortu zen. Txorierrin 3.700 gazte daude eta bertan hainbat gairi buruzko argibideak —lana, aisialdia...— jasotzeko aukera eskaintzen zaie lehiatila bakar batean.

Txorierriko Gazteentzako Informazio Bulegoak bost atal aztertzen ditu: enplegua, enpresen sorkuntza, prestakuntza, aisialdia eta solidaritatea. “Kortxoetan eta datubaseetan antolatzen dugu informazioa eta goizero eguneratzen dugu”, azaldu digu Inge Elorriaga arduradunak. “Euskal Herrian ez ezik, Espainian eta European ere eskaintzen diren 600 lanpostu berri batzen ditugu astero ordenagailuetan”.

Curriculum eta aurkezpen gutuna osatzen laguntzeaz gainera, praktikak egiteko edo atzerrian lan egiteko xehetasun guztien berri ematen dute bulegoan. Enpresa berria sortzeko aholkularitza eskaintzen dute gida baten bidez. “Dirulaguntzak eta bekak ere jakinarazten dizkiegu gazteei. Dena dela, Behargintza ere horretaz arduratzen da eta guk ahalik eta informazio osoena ematen saiatu arren, bertara bidaltzen ditugu erabiltzaileak. Eraikin berean gaude eta guk baino hobeto dakite”.

Ikasleek ere abantailak topatzen dituzte Gazte Bulegoan: diru laguntzak, oposizioak, ikastaroak edo atzerrian ikasteko aukera dira horren adibideak. Eta boluntarioa edo kooperantea izan nahi dutenentzat ere interesgarria da bulegora hurbiltzea. “Arlo horretan diharduten enpresen zerrenda osatu, eta harremanetan jartzen

ditugu gazteekin”, aipatu du.

Aisialdiari dagokionez, Espainiako herrialde guztietako informazio turistikoa eskaintzen da. Gainera, Aldundiak udan antolatzen dituen kanpainetarako izena ematea posiblea da Gazte Bulegoan. “Interraillez bidaiatzeko xehetasunak helarazten ditugu eta baliagarriak izan daitezkeen txartelak egiteko aukera ematen dugu”.

Denetariko jendea hurbiltzen da bulegora. “16 urtetik 32 urte bitartekoak gaztetzat hartzen dira, baina hemen ez dira urteak galdetzen”. Hilero 130 bat kontsulta egiten dira eta gehienak enpleguari buruzkoak dira. Horrela, bada, aurreko hiru hilabeteotan kontsulten % 37 arlo horren gainera kontsultak izan dira. Tarte horretan ere, 99 neska-mutilek eskatu zuten trebakuntza-aren inguruko argibidea, % 26k hain zuzen

*“Euskal Herrian ez ezik,
Espainian eta European
ere eskaintzen diren
600 lanpostu berri
batzen ditugu astero
ordenadoreetan”*

ere. Aisialdiaz 34 gaztek galdetu zuten eta bekez edo oposizioez, ordea, 17k. Arduradunaren ustez, normala da gehienek lanari buruz galdetzea, “jendea Behargintzara etortzen delako eta arlo horretaz aritzen direlako bertan”. Behargintzarekin eraikin berean egoteak alde onak ekartzen dizkio Gazte Bulegoari, Ingeren iritziz. “Behargintza gu baino ezagunagoa da eta horregatik hona etortzen direnak azkenean gugana ere hurbiltzen dira. Horretaz aparte, gauza asko antolatzen ditu eta informazioa zuzenean etortzen zaigu”.

Hala ere, kokapena ez da ona. “Ez da edonora errekaduren bat egitera joan eta bide batez sartzeko aukera ematen dizun tokia, hobe izango litzateke Derio erdian egongo bagina”. Dena dela, arratsalde bulegoa Txorierrin osora zabaltzen da, herriz herri jartzen diren argibide-puntuen bidez. “Asteazkeneko txosten bat egiten dugu. Bertan, lehiaketa, beka, oposizio eta lanei buruz sortzen den asteko informazioa agertzen da. Buletina herri bakoitzean jartzen dugu eta instituturak, Politeknikak bidaltzen dugu, baita kultur teknikariei ere”.

Txorierriko gazte askok bulegoa oraindik ezagutu ez arren, gero eta gehiago hurbiltzen hasi dela adierazi digu Ingek. “Arratsaldean etortzen direnek ondo dakite gurea gazte informaziorako bulegoa dela. Baina gehienak goizez hurbiltzen dira eta hauek Behargintzarekin nahasten gaituzte. Badakite zerbait badagoela, baina ez dakite ziur zer den”.

Herriz herri

—Goizez:

•Astelehenetik ostiralera: 9:00-14:00

—Arratsalde:

•Astelehena: Larrabetzuko Kultur Etxean, 16:00-18:00

•Astearte: Derioko Gaztelekuan 16:30-18:30

•Asteazkena: Zamudioko KZgunean, 16:00-18:00

•Osteguna: Lezamako Liburutegian, 16:00-18:00 eta Txorierriko Institutuan 11:00-11:30

•Ostirala: Loiuko Kultur Etxean, 16:30-18:30

Behargintza eraikinean,
Berreteaga Industrialdea 13 A

48150 SONDIKA

ioj@e-txorierrri.com

94 453 67 98 / 94 453 63 70

Martin Mac Gragh, gazte abenturazalea



“Karrera bat aukeratzerakoan gustukoena hartu behar da”

Ikasle bikaina izan da Martin Txorierriko Institutuan, eta Euskal Herriko sariketa batean ere hartu du parte. Hori aitzakiatzat hartuta elkarrizketatu dugu gazteen kezkek eta ilusioak eza-gutzeko.

Zein sariketatar aurkeztu zinen?

Euskal Herriko Batxiler mailako Aparteko Sarira eta, egia esateko, ezer prestatu barik diru pitin bat atera nuen. Dena dela, ikastea garrantzitsuena ulertzea dela uste dut, eta ez dena buruz ikastea. Gainera karrera bat aukeratzerakoan gustukoa hartu behar da eta ez zaie bakarrik begiratu behar gero edukiko dituen irteerei. Nire kasuan aparteko garrantzia du karrera hori nola egiten den, hau da, ea alde humanoa errespetatu egiten den edo zu pertsona moduan existitzen zaren, eta, zoritxarrez, batzuetan alde hori ez da behar beste lantzen.

Hortik aparte ere, hainbat hizkuntza dakizkizu...

Bai, euskara, gaztelania, ingelesa eta alemana nahikotxo. Bestalde, frantsesari

dagokionez ulermen mailan moldatu egiten naizela esan daiteke, berba egiteko zailtasun handiak badauzkat ere. Euskara eta gaztelania etxean nahiz institutuan ikasi ditut; ingelesa, berriz, zer edo zer institutuan, Derioko akademia batean eta horrezaz gain urtebete eman nuen Irlandan DBHko 4. maila ikasten. Azkenik, alemana bai akademian eta bai Irlandan ere ikasi dut. Eta esperientzia honen ostean kanpoko batentzat zailena euskara izango dela esateko moduan nago. Beraz, euskara ikasi duzuenoi besteak ikastea erraz egingo zaizue.

Txorierri mailan zer botatzen duzu faltan?

Ba, kirol aldetik eskaintza zabalagoa egotea. Izan ere, futboleko eskaintza handia badago ere, ezin da gauza bera esan saskibaloari, eskubaloari edo triatloiari buruz. Niri eskalatzea gustatzen zait, baita mendira joatea ere, lehen egiten zen moduan, lagunartean eta ondo pasatzera, natura ezagutzera eta berarekin harremanetan egotera. Geure kasuan badugu Derion rokodromoa, baina txiki gelditu zaigu eta ondo legoke osoago bat

“Karrera batean alde humanoa ere landu behar da. Zu pertsona moduan hartu eta tratatu behar zaituzte”

edukitzea, Leioan dagoen modukoa edo, alegia gela modukoa eta era guztietako zailtasunekin. Eskertzekoa litzateke!

Badakigu abentura maite duzula... Zer egiteko asmoa duzu udan?

Iaz auzolandegi batean egon nintzen Alemaniako Bavaria eskualdean. Inoiz ezagutu dudako esperientziarik politena izan zen; mundu osoko gazteak bildu ginen bertan, eta, berriz diot, fantastikoa izan zen, edonori gomendatzeko modukoa. Aurten Pirinioetara joango gara eskalatzerako, eta gero Italiara oinez egiteko Asisetik Florentziara dagoen ibilbidea. Hau ere jendea ezagutzeko aukera ona izango da. Bueltan egingo dugu berba!

“Edozein gazteri gomendatuko nioke auzolandegietara joatea. Zoragarria da!”

“Irabaztea gustatzen zait, baita mahai-futbolean ere!”



Motorra hartu eta hara eta hona ibiltzea da gehien gustatzen zaiona Iñigo Lazarori, izan ere trial-lasterkari amorratua dugu zamudioztar hau. Euskadiko txapelketa izan zen iaz helduen kategorian, eta titulua berriro lortzeko prest dago aurten.

Testua: Itxaso Marina

nuen eta trial egiteari utzi nion 1994. urtean. Bost urte beranduago ekin nion berriro aritzeari.

Zertan datza trialeko proba bat?

Zirkuitu batean oztopoz beteriko hainbat gun e jarri eta oztopo horiek gainditu egin behar dira oinak lurrean ahalik eta gutxien jarritz. Oina behin jarritz gero, puntu bat ematen dizute; bitan egin ez gero, puntu bi; hirutan edo gehiagotan egiten baduzu, hiru puntu eta motorra gelditu edo atzera egiten badu, bost. Punturik gutxien lortzen duenak irabazten du proba.

Zaila izango da oina zoruan ez jartzea...

Bai, eta ez jartzeagatik gauza okerragoak egiten dira askotan: “fiaskoak”, adibidez. Horiek bost puntu balio dute. Halakoren bat egin ondoren, zergatik ez naizen puntu baten bila esaten didate lagunek... Baina dena perfektu egiten saiatu behar dut nik... Eta “fiaskoren” bat ateratzen bada, zorte txarra! Ezin zara gertatutakoarekin bueltaka ibili. Eta motorrari ere ezin zaionez errurik bota...

“Fiaskoren bat ateratzen bada, zorte txarra! Ezin zara gertatutakoarekin bueltaka ibili”

Egundoko teknika eta oreka izan beharko dituzue...

Bizikletaz ibiltzen hartzen dira biak eta motorrera eramaten dira gero. Gakoa ez dago azkar ibiltzean, baizik eta oztopoen aurrean jarri eta ondo gainditzean. Eta teknikak oreka handia eskatzen dizu... Trial egiteko ez da beharrezkoa pertsona oso indartsua izatea; gorputza, esekidurak, azeleragailua eta enbragea ondo aprobe txatzen ikasi behar da, besterik ez. Hori ekinaren ekinez lortzen da. Kirol erreza dela pentsatzen du jendeak, telebistan agertzen diren motoristek primeran egiten dutelako dena... Baina, ez pentsa, oso burugogorra izan behar da, eta ni oso burugogorra naizenez...

Teknika eta oreka ekinaren ekinez lortzen direla esan duzu. Zelango entrenamenduak egiten dituzu?

Asteburuetan mendira joaten naiz: Balmasedara, Amurriora, Artxandara... Eta karreraren bat izanez gero, astean zehar ere egiten ditut entrenamenduak. Edozein lekutara ezin gara joan, jendea haserretu egiten delako. “Aizue, aurreko egunean arrapaladan pasatu zineten hemendik!”, entzun dugu askotan. Eta ez garela gu izan erantzuten dugu. Trialean lehenengo eta bigarren martxak baino ez direla erabiltzen, gehien jota, orduko bost kilometroko abiadura hartzen dugula... Izan ere, motokrosa eta triala nahastu egiten ditu jendeak. Gainera, mendia zaintzen saiatzen gara. Egia da apur bat hondatzen dugula, noski. Baina gun e bat oso hondatuta ikusiz gero beste batean entrenatzen dugu, hura berriro ahal izateko. Beste alde batetik, hainbat proba antolatu

Noiz hasi zinen trial munduan?

Duela 16 urte. Asuako baserrian bizi nintzen garai hartan eta jendea motorrez ibiltzen ikusten nuen bertatik. Kuriositatea piztu zitzaidan, bai! Gurasoei ezer esan barik, bizikleta hartu eta mendira igotzen nintzen eurekin. Oso mundu polita da, jendeak izugarri laguntzen diotelako elkarri. Niri, adibidez, motorra eta guzti uzten zidaten... Badakizue, bizikletarekin hasten da dirurik ez dagoelako, eta lan munduan sartu bezain pronto lehendabiziko motorra erosten duzu...

Eta noiz erosi zenuen zuk lehendabiziko motor hori?

1991. urtean erosi eta Euskadiko Txapelketa irabazi nuen junior kategorian. Hainbat txapelketatan parte hartu nuen handik aurrera, baina lepoko mina izan

ditugu Pagasarrin eta ez digute inoiz trabarik jarri, badakitelako dena garbi eta zegoen moduan uzten dugula.

Mendira bakarrik ala lagunekin?

Lagunekin beti, mendia oso arriskutsua delako eta txitean-pitean erortzen zarelako lurrera. Egundoko kolpeak hartzen dira!

Eta kolpeak ez dira berdin hartzen hogeiterterekin eta hogeita hamaseirekin...

Ba, ez! Besoak, belaunak eta saiheatsaren bat apurtu zaizkit... Eta eskumuturra duela urte bi. Aberia handia izan nuen eta larritu egin nintzen. Trial egiteari behin betiko uztear egon nintzen, baina ebakuntza egin ondoren ondo gelditu zitzaidan eskua eta hobeto pentsatu nuen... Motorraz ibiltzera mendira joatea ez da nahikoa niretzat; lehian aritu behar dut. Irabaztea gustatzen zait... Mahai-futbolearen ere bai!

Triala gune irekietan zein itxietan egiten da...

Erakustaldiak gune irekietan –in door– egiten dira eta askoz errazagoa da, zorua tinakoa delako eta oztopoak ez direlako mugitzen.

Zamudion erakustaldiren bat antolatzea pentsatu dugu, kirol hau jendeari hurbiltzeko. Eta mendian edota gune irekietan –out door– izaten dira probak. Eguraldia ez da arazo handia niretzat, bertokook ondo defenditzen dugulako geure burua lur bultzatzen; kanpotarrek okerrago pasatzen dute. Baina, jakina, gero joaten zara Bartzelonara eta eremu harritsuan sartzen zaituzte...

Zein lekutan egiten dira probak Bizkaian?

Amurrión, Balmasedan, Enekurin, Galdakaon... Baina lehen baino askoz gutxiago egiten dira, kirol honek ez duela dirurik ematen eta Federazioak ez duela arriskatu nahi. Futbola izango balitz ikusiko genuke! Zaleak antolatzen dabil-tza, baina eurentzat ere zabaldu da kategoria bat, eta probak antolatzen badituzte ezin dute bertan parte hartu eta aldrebes. Nahaste handia!

Maila handia dago trialean?

Bai, eta lehian aritzen direnek badakite irabazteko aukera handiak dituztela.

“Lehen baino askoz trial-proba gutxiago egiten dira, kirol honek ez duela dirurik ematen”

Adibidez, Espainiako Txapelketan kategoria bakoitzeko onenek hartzen dute parte eta zaila da. Hain da zaila non batzuek ez duten ezta lizentzia ere ateratzen, badakitelako ez dutela emaitza onik lortuko.

Zeure kabuz parte hartzen duzu txapelketetan, ez zaude inongo taldetan sartuta...

Taldeak egon badaude; hala ere, kirol honetatik bizi izatea oso zaila da. Munduko onenek baino ez dute lortzen... Eta hamar lagun dira!

Zein probatan parte hartzeko asmoa duzu aurten?

Batzuk programatuta ditut –Errioxa, Balmaseda, Santillana del Mar...–, baina lehiaketa-egutegia hartu eta ahalik eta gehienetara joaten naiz normalean.

Iaz Euskadi eta Bizkaiko txapelduna izan zinen. Titulua berriro lortzeko prest?

Nahi nuke, baina ez da erraza izango. Hala ere, aukerak ditudala uste dut. Oso baiko-rra naiz. Eta Espainiako Txapelketan lehenengo bosten artean egotea gustatuko litzaidake. Ez dakit, ahalik eta urte gehien trial egiteko asmoa daukat, baina, badakizue, entrenatzeko astirik beti ez dagoela, lesioren bat izaten duzula...

Zein da trialaren alde positiboa eta negatiboa?

Gogor lan egin ondoren, saria itzela da gauzak ondo irtenez gero. Eta alde negatiboa? Ez dagoela esango nuke. Itsusia den gauza bakarra haxe da: familiarekin egoteko astia kentzen dizula. Trial egitera aste-bururo joatea gustatuko litzaidake, baina beste lehentasun batzuk ditut orain.

Espainiako Txapelketan lehenengo bosten artean egotea gustatuko litzaioke Iñigori



Goi-Alde dantza taldeak 40 urte bete ditu

Erandioko Landako Goi-Alde dantza taldearen 40 urteurrena izango da abuztuaren 15ean. Haren historiari errepasoa egiteaz ganera, Sorkunde Goikouria eta Jaime Urtiaga dantzariakaz izan gara berbetan.



1965eko debutaren eguna.

Goiko lerroan ezkerretik eskumara: Andoni Lekunbarri, Jose Luis Orbe, Itziar Aresti, Maritere Arberas, Argiñe, Maria Antonia Astarloa, Maribel, Alicia Aurrekoetxea, Maria Pilar Zarraga, Yolanda Zubiar, Jose Luis Intxaurre, Xabier Aburto.

Beheko lerroan ezkerretik eskumara: Javier Intxaurre, Ramon Ayo, Guillermo Berriatua, Iñaki Goikouria, Javier Bidarte, Felix Olabarrieta, Joseba Elexpuru, Jesus Mari Ayo, Jose Felix Madariaga, Jaime Urtiaga.

*Jesus Fermin eta Miguel Angel Madariaga anaiak lehenengo taldean egozan, baina oportetean egozanez, ez eben dantzatu lehenengo ekitaldian.

“Dantza taldeak inolako diru laguntza barik iraun eban, harik eta 1983an Erandio Bilbotik desanexoniatu zan arte”

Dantza taldea Jose Luis Intxaurrek sortu eban, Erandioko gazteen artean euskal kultura zabaltzeko asmoz. Lehenengo agerraldia 1965. urteko abuztuaren 15ean egin zan. Hasiera batean mutilek baino ez eben parte hartzen, baina aurrerago neskatoek be euren lekua izan eben taldean.

Apurka-apurka, Goi-Alde dantza taldea sendotzen joan zan, nahiz eta Frantziaren garaian aldi txarrak pasatu. Dantzari Dantzatik –eta errepertorioa handitu guran–, Zuberoako Maskarada eta Nafarroa Behereko dantzakaz osotutako ikuskizun batera heldu ziran. Eta erakustaldi garrantzitsua eskaini eben 1980. urtean Leioako Unibertsitateko Areto Nagusian. Gerora, Gipuzkoa, Lapurdi eta Arabako dantzak gehitu, eta gaur egun errepertorio zabala daukie Euskal Herriko dantzez osotuta.

Taldeak Bizkaiko Foru Aldundiaren, Erandioko Udalaren eta enpresen lagun-

tzari esker bere zilarrezko esteiak ozpatu ebazan 1990eko uztaildean, eta asteburu oso batean hainbat kultur ekintza antolatu ebazan. Besteak beste, azpimarratzekoak dira bertoko jantzi eta tresnen erakusketa, hitzaldi eta mahai inguruak, umeentzako antzerkia eta musika emo-

naldiak, Oskorri eta Lous Cigalouns taldeen eskutik.

Beste alde batetik, Goi-Alde Euskal Dantzarien Biltzarreko kidea dala esan beharra dago, eta bertan hainbat dantza ikasi eta hobetzen dauzala.

Dantza taldeak inolako diru laguntza barik iraun eban, harik eta 1983an Erandio Bilbotik desanexoniatu zan arte. Udala sortu, eta ordutik urtero hartzen dau dirulaguntza. Goi-Aldek lanean segitzen dau eta gure herriko dantzen irakaskuntza ez ezik, ume zein gazteei zuzendutako hainbat kultur ekintza ere antolatzen dauz. Lan hau aurrera eroatea ez da erraza, Erandioko Landako biztanleria sakabanatuta dagoelako, eta oraingo dantzari asko lehengo dantzarien seme-alabak dira.

Dana dala, gaur egungo egoera nahi-ko ona da eta 90 partaide daukaz taldeak. Txistulariak, trikitilariak eta soinulariak ere ugaritzen doaz dantzarien artean.

Kanpoko ekitaldiak

Goi-Alde dantza taldearen ekitaldiak normalean Bizkaiko lurraldean egin arren, kanpoan be emon dabez ikuskizunak:

–El Vendrell (Tarragona): 1984, 1985, 1986, 1990 eta 1992

–Lantziego: 1992, 1993 eta 1997

–Müster eta Innsbruck (Austria): 1998

–Valladolid: 2001 eta 2002

–Irun: 2000 eta 2001

–Jaen: 2004

“Gure dantzak Euskal Herriaren zati bat dira”

**Sorkunde eta Jaime Goi-Aldeko dantzaririk beteranoe-
tariko batzuk doguz. Gizonak taldearen lehenengo
agerraldian parte hartu eban 1965. urtean eta gaztetxoei
irakasten deutse gaur egun. Sorkunde sei urtegaz hasi
zan dantzatzen eta harrezkero jarraitzen dau taldean.
Berak ere dantzak irakasten dauz.**

Gaur egungo taldea



Zer prestatu dozue 40. urteurrenerako?

Sorkunde: Goi-Aldetik pasatu dan ahalik eta jenderik gehien batzen ahaleginduko gara, talderik gehien osatzeko. Ostean bazkari bat egongo da eta arrastian erro-meria bategaz amaituko dogu. Zerbait gehiago ere antolatu dogu, baina oraindik finkatu barik dago. Asteburu horretan jaiak izango doguz eta ekitaldiren bat be antolatuko da.

**Zu Jaime, zelan hasi zinen mundu hone-
tan?**

Jaime: Don Marianok —herriko abade-
ak— ideia euki eban. Jose Luis Intxaurreaga eta bere anaia gaz kontaktoan ipini entsaietako, eta aurrera. Orduko ego-
era guztiz desberdina zan. Egoera politi-

*“Taldea politikari ihes
egiteko modu bakarra
genduan garai hartan”*

koa oso larria zan eta dantza talde hau,
hainbat mendi talderen moduan, eleizaren
inguruan sortu zan. Kontuan hartu, lehe-
nengo ezpatak abadeak erosi ebazan!
Elkartzeko modu bakarra hau genduan;
politikari ihes egiteko modu bakarra.

Zenbat urtegaz hasi zinen?

J: Hamaikagaz. Orain 51 daukadaz, dan-
tza taldeak daukazan beste urte daroadaz
lotuta taldeari. Dantzan ibili nintzen 28
urte egin arte, eta urte batzuk lehenagotik

dantzan irakasten deutset gaztetxoei.

S: Jaime Dantzari Dantza irakasten gehien dakiena da.

Eta zu, Sorkunde?

J: Gaztetan nire nebak dantzatzan eban eta nik haren atzetik joan behar. Bost edo sei urte eukiko nebazan. Gaur 41 urte daukadaz eta hemen jarraitzen dot: dantzan eta neskatoei irakasten.

Horrenbeste denbora pasa eta gero, zergaitik jarraitzen dozue?

S: Ez dakit, gustora nabil. Barruan daroagu.

J: Gaztetan “benenoa” sartu neutsen Sorkunderi eta beste batzuei. Gazteei erantzunkizunak emon behar jakez, eurak be zerbaiten zati garrantzitsua dirala sentitze-ko. Orain ezin dabe itxi.

S: Dantzakideak baino gehiago lagunak gara, eta hori garrantzitsuena da. Gure harremana ez da ekitaldi edo entseguan amaitzen. Zerbait hartzen dogu, edo bazkaltzeko geratzen gara. Zorionez, gazteen artean be holango zeozer gertatzen da.

Asko aldatu da mundu hau?

J: Lehen gehiago sentitzen zan, bihotzez bizitzen zan. Orain ikuskizun bat da. Gogoratzen dot, aspaldi, Erreteriarra joaten ginanean, talde desberdinetakoak abesten hasten ginala, hango komentu baten ondoan bazkaldu ostean. Harek euskaldunok batzen gintuan.

Niri gehien gustatzen jatana hortik bazkaltzea zan. Lehen Durangora joatea edo Gipuzkoa aldera ez zan egunero egiten, gaur egun kotxeak hartu eta ordubete-an Donostian z... Baina lehen...

S: Arlo guztie moduan hemen modak egon dira. Gure arropetan, adibidez. Lehen gona belaunetik goitik egon behar zan eta txapinek belaunetik gora. Gaur, oster, gona belaunetarraino eta txapina apur bat beherago.

J: Lehen meza ostean dantzatu eiten zan, ez as... baina bai orain

1980an Enekuriko Fatima elizan ateratako aragazkia



Arratsaldeetako erromerietan bai egiten zala dantzan!

Geure inguruan dantza talde asko egon dira: Loiuko Beti lagunak, Umetxu alaiak Erandio Behekokoa, Garbinai, Sukalde alai, Zutik, Odol gaztea, Hiru bat, Goizalde... pilo bat! Batzuk desargetu egin dira, beste batzuk sortu. Baina talde gehiago egozan lehen.

Eta etorkizunari begira, zer jatortzue?

J: Nahiko harrobi ona daukagu, izan be, 4 eta 16 urte arteko 29 ume dagoz taldean. Lehen gehienak neskak ziran, orain mutikoak. Hiru urteko neskato bat be dauka-

ardinak, eta ez da holan. Ez dakie hanka behar beste altxatzen dan edo punteoak fatxadaz egiten diren eta hainbat eta hainbat gauza. Gure dantzak Euskal Herriaren zati bat dira, dantza guztiek badaukie euren esanahia. Adibidez, Txotxongilo dantza hildakoei egiten jaken omenaldi bat

“Lehen bihotzez sentitzen zan dantza, orain ikuskizun bat baino ez da”



jarraitzen badogu, rera egingo dogu. elaualdi desberdina-ak batera gagoz. Nire semeak dantzatzan dau, eta Sorkunderen alabak be hor dabilz.

Kritikaren bat?

J: Gitxi baloratzen da, eta gure historia eta ohituren parte bat da. Mundu guztiak daki txotxongilaz, baina dantza ikusten danean jendekin deuto. Jende dantza guztiak dira

da, dantzariak euren buruen gainetik dantzaria altxatzean, horrek hildakoaren lekua hartzen dau.

S: Dantza gehienak gizonezkoak dira. Guda dantzak-eta matxistak dira. Makilak eta ezpatak dantza askotan agertzen dira... Neskentzako dantzak, barriz, oso gitxi dira. Neskak laguntzeko baino ez ziran. Beste kontu batzuetan sartuta, alde ekonomikoa be aipatu behar dogu. Normalean, dantzak jaietako egitarauak betetzeko baino ez dira izaten eta kobratzen doguna beti da gehiegi. Horrela, bada, ekitaldi baterako hogeita hamar pertsona baino gehiago mobidu behar doguz sarritan.

Testua: Asier Oruetxebarria / Argazkiak: Goi-Alde

Dantzarien jaialdiaren gaineko gogoeta

Pasadan maiatzaren 15ean Bizkaiko Dantzari Eguna ospatu zan barriro be Txorierrin, oraingoan Erandioko Landan. Bizkaiko dantzarien urteroko jai erraldoia da Dantzari Eguna eta aurten 3.000 dantzari eta beste 7.000 dantzazale batu dira egun hori ospatzeko. Erandioko Arteaga futbol-zelaia dantzariz beterik ikusi ahal izan gendun bertara parajetu ginen guztiok. Ikuskizun itzela benetan dantza gustuko dauanarentzat!

Egun horrek daukan balioagaz konturatu gaitez, ariketatxu bat proposatu gura deusuego irakurleoi: Pentsatu egizue hemengoa ez dan lagun bat dator-tzuela egun batzuetarako bisitan, eta zuok Dantzari Egunera daroazuela; zelan azalduko zeunskio lagun horrerri jai hori zertarako dan, zer egiten dan bertan, zergaitik eta, azken baten, zer esan gura dauan horrek guztiorrek guretzat? Ez da hain erreza, ezta? Eta berak futbol-zelai bete dantzari ikusita zelako erreakzinoa eukiko eban imajinatu zenkie? Harrituta lotuko leitike seguruenik, holako ekitaldiek ez diralako hain usu ikusten eta horixe da hain zuzen be, bertaratu diran kanpoztar askori pasatzen jakena: zirrara.

Baina ez dira kanpoztarrak Dantzari Egunekeo jaia ikusita harrituta lotzen diran bakarrak, bertako asko, urtero jai horretara joanda be, emozionatu egiten dira-eta. Esate baterako, bateri baino gehiagori uleak puntan ipini jakozan pasadan

maiatzaren 15ean, ekitaldi hasieran, 685 mutil (gero esango dabe mutilek ez dabela dantzarik egiten!) “Agintariena” dantzatzan ikusikeran. Zer zan ha! Ikurrinak astintzen ziran artean, hango irrintziak, hango txalo zaparrada luzeak! Jentea sano emozionata egoan benetan! Geuri bere oilo eperdia ipini jakun.

Horren ostean, Euskal Herri osoko beste dantza asko egon ziran ikusgai: Gipuzkoako Brokel Dantza; Arabako Biasteriko jota eta Eltziego; Durangaldeko Gorulariak eta Domingillo; Iparraldeko Zapatagin eta S^a Petrike; Villabuenako makil dantza, Nafarroakoa, ... Dantza guztiak, betiko legez, Juan Mari Irigoien

dantza ikerle eta jakitun handiak aurkeztu eta luze eta zabal azaltzen ebazan. Eta esan behar da adin guztietako dantzariak ikusi ahal zirala txiki-txiketarik hasi eta heldu-helduetara arte.

Dantza ekitaldia akabatzeko “Kai-xarranka” dantza ikuskizun zoragarriaz disfruta genduan bertan ginanok. Dantza horren esangurak aldaketa bat emoten dau Lekeition San Pedrori dantzatu beharrean, 40 kaixa inguru ikusten doguzanetan zelaian sartzen “arrantzaleen” lepo gainean, bakotxak bere dantzaria ganean dauala. Eta zortziko eta jota dantzatzan kaixa gainean dagoan dantzariak bere abilezia erakusten dau eta azpiko gizon

indartsuek, oinarriaren sendotasuna. Ostean, gura ebanak (askok eta askok) dantza nazionala bihurtu dan Larrain Dantza dantzatu eban. Bazkal ostean, eguraldia eta lekua lagun, erromeri giro polita egon zan. Erandioko Landea txiker lotu zan bertan jantzan ibili ziran dantzari-entzat, eta giro ezin hobea egoan.

Aitatu beharrekoa da antolatzaileek egindako beharra eta herritarren inplikazinoa, danoi gure zorionik beroenak. Eta Zorionak Goialde dantza taldeari be bai bere 40. urteurrenagaitik, segidu egizue horrenbeste dantzari fin emoten! Eta Zorionak be bai Bizkaiko dantzari guztiori, ostabere erakutsi dogulako Bizkaian dantzea bizirik dagoala eta bizirik egongo dala urte askoan dantzari eta ikusleei esker.



Argazkia: Bizkaiko Dantzarien Biltzarra
Testua: Latsarrizekoak

“Zentzua geuk ematen diegu hitzei”

Lezamako Marga Martinek eta Josu Garciak “Txinatik etorritako Printzesa” ipuina kaleratu zuten urrian, eta bertan zergatik etorri zen hain urrunetik azaltzen diote alabari. Margarekin solasean izan gara.

Irudiak: Juanjo Baron/ Testua: Itxaso Marina

Azaldu apur bat, mesedez, ipuinaren nondik norakoak.

Ipuinak alabaren istorioa kontatzen du. Nahia Chun Txinatik etorri zen, zortzi hila-bete zituela. Hiru urte bete ondoren, zergatik bera ez zen nire barruan egon —eta neba bai— galdetzen hasi zen eta hain ume txiki bati egia esatea oso zaila suertatzen zitzaigun. Orduan, ipuina balitz bezala kontatzea erabaki nuen. Seme-alabak, senarra eta biok, dragoia, dortoka... agertzen gara ipuin horretan. Eta nola eta zergatik etorri zen Txinatik kontatzen diogu bertan. Mota bitako seme-alabak daudela esaten diogu Nahiari: tripakoak eta bihotzekoak. Eta bera bihotzeko alaba dela.

Eta nola azaltzen zaio hain ume txiki bati bera Txinatik etorritako printzesa dela?

Oso printzesa berezia nahi genuela azaltzen diogu, baina inguruetatik ez genuela topatzen. Eta kanpotik bilatzen hasi ginela beste pertsona batzuen laguntzarekin, harik eta bera Txinan aurkitu arte. Txinan printzesa pilo bat dagoela.

Hasiera batean, ez zenuten ipuin hori paperean jartzeko asmorik...

Ez. Nahiak ipuina kontatzeko eskatzen zidan gauero eta istorioa handituz joan zen. Alaben bila Txinara elkarrekin joan ginen sei familiak urtero batu eta opari bana eramateko ohitura daukagu. Ipuina opari polita izango zela pentsatu genuen; hala ere, zerbait xumeagoa egiteko asmoa genuen: ordenadoretik inprimatu eta kito. Baina karaktere txinatarrak sartzen hasi ginela, senarraren lagun batek marrazkiak egin zituela... Eta pena zen ordenadorean disko gogorrean gelditzea!

Ipuina hainbat hizkuntzatan argitaratu duzue...

Hasieran 1000 ale kaleratu genituen, baina

“Mota bitako seme-alabak daudela esaten diogu Nahiari: tripakoak eta bihotzekoak. Eta bera bihotzeko alaba dela”



Nahia Txinatik etorritako beste neskatilekin

ipuinak oso harrera ona izan zuenez, 4000 ale gehiago ateratzea erabaki genuen: 1000 euskaraz, 1000 gaztelaniaz, 1000 katalanieraz eta 1000 ingelesez. Zergatik gaztelaniaz eta euskaraz? Ba, argi dago. Eta zergatik katalanieraz? Katalunian oso populazio txinatar handia dagoelako. Horrezaz gainera, bertako *Asociacion de Familias Adoptantes en China* elkartearen gaude eta katalanieraz egitea proposatu zitzaigun. Eta ingelesez? Estatubatuar askok ume txinatarrak adoptatzen dituztelako.

Ipuina Euskal Herriko eta Errioxako liburutegietan eta liburudendetan dago salgai. Banatzailerik ez dugu eta ezin izan da hemendik kanpo eraman oraindik. Argitaletxerik ere ez dugu. Geuk egin dugu dena. Eta beste pertsona batzuek gure istorioa interesgarritzat hartzea oso harrigarria izan da guretzat.

Gainera, euskara eta karaktere txinatarrek batzen dituen lehenengo liburua da.

Bai, gauza berezi bat egin nahi genuen. Gainera, baliagarria izan daiteke Txinatik etorritako printzesa guztientzat eta haien gurasoentzat, hau da, jatorrizko kulturarekin harreman txiki bat izateko balio ahal zaie.

Kuriosoa da, baina helduei kostatzen zaie

“Beste batzuek gure istorioa interesgarritzat hartzea oso harrigarria izan da guretzat”

sinboloak gogoratzea eta askotan karaktereen esanahia begiratu behar dute ipuina irakurtzen duten bitartean. Umeek, berriz, primeran identifikatzen dute sinboloa esanahiarekin.

Eta zer dio Nahiak, izan ere neskatila guztiek ez dute beraiei buruzko ipuinik...

Oso harro dago. Inprentara eraman baino lehen berari eta semeari irakurri genien eta berehala harrapatu zuten istorioaren zentzua. Baina oso txikiak dira oraindik ipuinaren inportantzia osoaz jabetzeko. Nagusitzen direnean sentimendua beste era batekoa izango da.

Zergatik etorri zen printzesa hain urrunetik? Ez dago printzesarik hemendik hurbil?

Ume bat adoptatzea betidanik eduki dugu buruan eta semeak zortzi hilabete bete zituenean tramiteekin hastea erabaki genuen. Zergatik Txina? Alde batetik, bertan birritan egona nintzelako eta oso herri

erakargarria zelako niretzat. Eta beste alde batetik, adopzio-prozesua epe laburrenean egiten duen herria delako momentu honetan. Oso tramite garbiak dira eta ez dago bitartekaririk. Gurasoek harreman zuzena izaten dute hango gobernuarekin.

Nolakoa da itxaronaldia alaba besoetan izan arte?

Oso gogorra. Banekien Ian nire barruan zegoela eta bederatzi urteren ostean nire ondoan izango zela... Baina dena ziren galdarak alabarekin: Non egongo da? Nolakoa izango da? Zenbat urte izango ditu?... Eta zein ume emango zaizula jakinarazten dizutenean aurpegia jartzen diozu eta galderek hor jarraitzen dute: Ondo egongo da? Gaixorik egongo da?... Adopzio-prozesua ezberdina da Txinan, izan ere umea ezagutzen duzu bere bila joaten zarenean, ez lehenago... Izaten duzun bere gauza bakarra argazki bat da.

Luze hitz egin da Txinako umezurtz-etxei buruz. Nahia egon zena ezagutze-ko aukerarik?

Bai, baina beste gurasoek aukera hori izan. Alaba umezurtz-etxe batean Zuzendariari baimena eskatzen zizun oztoporik jarri. Langabezia prestakuntza izango zute baina ikusi genuena ondoan umeak ondo zainduta, gurasoak... Egia da umeak egoerak direnean etortzen direla, baina da, batzuek ez dutela osasun-arazorik, baina beste batzuek errakitis-moa edo azal-arazoak izan ditzaketela... Dena dela, ondo etortzen dira normalean, Txinako gobernuak gaixorik dauden umerik ez duelako sartzen adopzio-zerrendetan.

“Guk ez dugula alaba adoptatu, baizik eta berak gu adoptatu gaituela esaten dut nik”

Eta alaba ikusi zenutenean?

Hotel batean genuen zita eta bertan neskatila guztiak zeuden, gurea izan ezik. Ni etsita nengoen... Bai-na ailegatu zen azkenean. Umeek negar egitea normalena da, guraso-ordeak ez dituztelako ezagutzen eta fisikoki oso ezberdinak garelako. Baina Nahiak guztiz kontrakoa egin zuen: berarengana hurbildu eta besarkada eman zidan. Horregatik, guk ez dugula alaba adoptatu, berak adoptatu gaituela esaten dut nik.

Zelan moldatzen da Txorierrin?


Ondo. Txikia zenean txinatarra zela esaten dio iendeari. Eta bilbotarrak nahi



bat errusiarra izatea lagungarria izan da. Umeek barik, gurasoek dute arazoa gehienetan. ez dakitelako gauzak nola azaldu. nola tratatzen dugun beste gurasoei eskolako txikiak izan ere umeei ematen diren irakurketak dira egokienak asko-

interkulturalitatea eta ipuin bat ateratzeko

zitiak edukiko du izen-aleratuko da. Ian izan-eratzailera eta nolakoa izango egun arrunt bat kontatuko du bertan. Atzerritik etorritako gero eta ume gehiago eskolan eta kontuan ibiltzen gara asko beltza bada, beltza da eta dola “de color”. Beltz txikiak... Zentzua—ona izan den diegu hitzei.



Aldekone jaietan



Uztailaren 24tik 31 bitartean, Santiago eta San Inazio jaiak ospatuko dira Derioko Aldekone auzoan. Jaiok aurreko urteetako eskemari jarraituko diote, hala ere, nobedade bat edo beste ekarriko dute.

“Jaietako lehenengo egunean, tortilla txapelketa egingo da. Ekintza hori arrakastatsuenetarikoa bat izaten da, jende asko biltzen duelako, batez ere, jende gaztea”, azaldu digute Ixone Urrutikoetxea, Maider Torre eta Eider Lago jai-batzordeko kideek. Neska hauen iritziz, beharrezkoa da

Aldekonera gazte gehiago etortzea eta horregatik, Euskararen Eguna antolatu dute lehenengo aldiz, Tximintx Euskara Elkartearekin batera. “Gantxo moduan hartu dugu eta egun osoan hainbat ekitaldi egongo dira: herri kirolak, triki-poteoa, herri bazkaria, txitxi-burrun-tzi...”.

Gazteentzako kontzertuek eta helduentzako erromeriek ere lekua izango dute jaietan, eta Danbolin zar taldeak irakatsiko du nola dantza egin.

Beste alde batetik, Hungariako Pendzsom taldeak dantzen ikuskizuna eskainiko du San Inazio egunean. “Eta herri bazkaria ere izango dugu. Ohiturak agintzen duen legez, ahuntz jana”. Ekitaldiak Derioko probalekuan izango dira.

Jai-egitaraua osatzeko, Derioko Udalaren laguntza jaso dute. “Baina laguntza gehiago beharko genuke herri-tarren aldetik, izan ere, jai batzordea bost pertsonak baino ez dugu osatzen”.

Aldekoneko jaiak eta beste herri batzuetakoak data berean izango dira eta jai batzordekoek badakite konpetentzia handia edukiko dutela. “Baina auzoraino hurbildu, gurean ere primeran pasatzeko aukera dago eta!”.



Idi probak eta tortilla txapelketa jaietako ekitaldirik erakargarrienetarikoa batzuk izaten dira

Jai egitaraua

Uztailak 24a, domeka

12:30etan Ospakizuna
14:30etan Paella
18:00etan Pailazoak: Potxin & Patxin
20:00etan Tortilla txapelketa
22:30etan Gau dantza, Trikizio taldeagaz
03:00etan Diskoteka

Uztailak 25a, astelehena, Santiago eguna

12:00etan Meza Nagusia
13:00etan Herri Kirolak
14:30etan Sukalki txapelketa
18:30etan Dantza agerraldia, Lainomendi taldeagaz
20:00etan Danbolin zar

Uztailak 26a, martitzena, Santa Ana eguna

12:00etan Meza Nagusia
13:15etan Triki-poteoa

Uztailak 30a, zapatua, Euskararen Eguna

12:00etan Herri kirolak, triki-poteoa
15:00etan Herri bazkaria
17:00etan Umeentzako puzgarriak
18:00etan Herri kirolak
21:00etan Gau dantza, Drindots taldeagaz
04:00etan Diskoteka

Uztailak 31, domeka, San Inazio eguna

11:00etan Meza Nagusia
12:00etan Omenaldia herriko zaharrei; dantza agerraldia, Hungariako Pendzsom taldeagaz
14:30etan Herri bazkaria
19:30etan Idi probak
21:30etan Los 5 bilbainos





Dantza agerraldiak eta umeentzako puzgarriak egongo dira Aldekoneko jaietan

“Orbain bi ditut: bata azalekoa

Ikerketen arabera, milioi bi pertsonak ‘mobbing’-a jasaten dute Estatuan. ‘Mobbing’-a edo laneko jazarpena pertsona batek (edo lagun talde batek) beste lankide bati ematen dion tratu psikologiko txarra da. Erasotzailea biktimaren gainekoa izaten da beti. Txorierrin bertan, laneko jazarpena jasan duen emakume bat topatu dugu.

Non egiten zenuen lana?

Bertoko eraikuntza-enpresa batean hasi nintzen administrari laguntzaile lanetan, 17 urte nituela. Orain hiru urte enpresa horretatik alde egin nuen, bertan 27 urte eman ostean.

Noiz hasi zen mobbing-a?


Nagusiak erretiroa hartu zuenean, orain dela zortzi urte. Gerente berria izendatu, eta berak eta beste pertsona batek bizitza izorratu zidaten. Nik diru-kutxa, enkarguak eta albaranak egiten nituen, materiala banatzen nuen, harremana nuen bezeroekin... Eta bat-batean dena txarto egiten hasi nintzen. Egoera etsigarria zen: “Ez egin berba horrekin”, “Ez joan hara”, “Zuk zeure bizitza osoan ez duzu lan egiten ikasi”... Polita izan ezik, denetarik entzun behar nuen eta, komunera joanez gero, dirua kentzen zidaten diru-kutxatik. Ez zidaten ezer egiten uzten, eta elkarrizketak entzuten zizkidaten...

Zergatik hasi zen tratu txarra?

Bizia garraztu nahi zidaten, baliogabetu... Zarama banintz bezala sentiarazi nahi ninduten, ea bertatik alde egiten nuen.

Zein zen txarren eramatzen zenuena?

Dirua kentzea, kanbioak ematen ez baneki bezala uzten nindutelako besteen aurrean. Gainera, lana txarto egiten banuen, soldatik kenduko zitzaidalako mehatxua botatzen zidaten. Eta albaranak aldatzen zizkida-



Testua: Itxaso Marina

“Lan-zuzenbideko liburuetan zerbait azpimarratu, niri begiratu eta barre egiten zuen”

ten... Haiek egon ezean, ezin nuen fakturarik eman; erosketa 5.000 pezeta baino merkeagoa bazen, ezin nuen kreditu-txartelik onartu; betiko bezeroei ezin nien zorretan saldu; ez zidaten prezio-zerrenda kontsultatzen uzten... Luzamendutan ibili behar izaten nuen bezeroekin eta oso gogorra zen.

Egoera latza zen eta, gainera, lan istripua izan zenuen.

Bai, eta ospitalera eraman ere ez. Ez genuen mutualiterik eta etxean gertatu zitzaidalako esan behar izan nuen. Lankide bati debekatu zioten nire baja-parteen bila etxera etortzea... Eta hain nintzen leloa ezen, autoz laguntzen bazitzaidan, lanera joan ahalko nintzela esan bainien, oporrak hartu zituztenean. Istripuari buruz ez zidaten inoiz galdetu, izan ere, hamabi puntu baino ez zizkidaten eman behar izan.

Lanera itzuli, eta egoerak okerrera egin zuen...

Zarama banintz bezala sentitzen nintzen, umiliatuta... Ezin nuen lorik egin, hurrengo egunean zer egingo zidaten pentsatzen nuelako. Hiru antsietate-atake izan nituen eta medikuak depresio-baja eman zidan azkenean. Hemezortzi hilabeteko baja izan nuen. Zeure burua lasaitzea lortu zenuen tarte horretan?

Biktimaren perfila:

- Pertsona etikoa eta zuzena
- Oso langile trebatua
- Oso lankide ona
- Ondo lan egiten du taldeka
- Independentea da eta aurrea hartzen du
- Lankideek estimatzen dute

Erasotzailearen perfila:

- Ez du erru-sentimendurik
- Ez da langile trebatua
- Kontrolatzailea eta gezurtia da
- Enpresaren babesaren bila dabil
- Oldartuz gero, koldarra da

–Edozein aitzakia aintzat hartzen du biktima estutzeko

Ondorioak biktimarengan

- Antsietatea, apatia, arreta eza, depresioa...
- Gorputzeko mina eta nahasketa funtzionalak
- Sentiberatasuna, mesfidantza, bakartasuna eta oldarkortasuna
- Lanaren kalitatea urritzen da, lanera ez joaten hasten da, taldeka lan egiteko gogorik eza...
- Istripu gehiago izaten dira arduragabekeriaren ondorioz

eta bestea barnekoa”

Ez. Nire senarrak baja-parteak eramaten zizkidaten lanera, baina berari idatzizko baimena ematea agindu zidaten. Horrezaz gainera, parteak berandu eraman zituela sinatzera behartu nahi izan zuten birritan... Abokatuak posta ziurtaturen bidez bidaltzeko aholkua eman zigun.

Eta zergatik ez lana utzi?

Ez nuelako galdu nahi lortzea hainbeste kostatu zitzaidana, eta pentsatzen nuelako egoera gaindituko nuela. Baja amaitu, eta lanera itzuli nintzen. Handik hilabete bira utzi nuen enpresa. Ezin izan nuen gehiago.

Zer gertatu zen, bada?

Gerentea ez zena nire ondoan eseri, eta lan-zuzenbideko liburuak irakurtzen ematen zituen zortzi ordu. Zerbait azpimarratu, niri begiratu eta barre egiten zuen. Horrezaz gainera, telefonoa kendu zidaten eta baten batek nitaz galdezka deitzen bazuen, ez zidaten esaten. Eta boligrafoa etxetik eraman behar nuen. Memoria beteta zuen ordenagailu bat eman zidaten, eta daturen bat sartzen nuen bakoitzean sare nagusia blokeatu egiten zen. “Lotsagabe hori! Enpresa hondatu nahi duzu” eta horrelakoak entzun behar nituen orduan.

Eta 27 urteren ondoren, lana uztea erabaki

*“Akordio batera
ailegatzea beste aukerarik
ez genuen topatu”*

zenuen...

Abokatuak enpresarekin akordio batera ailegatzea aholkatu zidan: indemnizazioa, langabezia eta alde egitea... Ez genuen beste aukerarik topatu.

Epaiketak ez?

Ez, lekukoak eraman behar nituelako eta lankideen partetik ez nuelako oso argi ikusten.

Ez zenuen haien laguntzarik jaso, ala?

Bai eta ez. Oso bakarrik sentitu naiz lanean. Laguntza guztia familiagandik jaso dut.


Eta zelan zaude orain?

Hobeto, hala ere, depresiorako pilula erdia hartzen jarraitzen dut. Beste lan bat topatu dut eta bezeroen afektua izateak izugarri lagundu dit. Baina hau ez da erraza ahazten, eta horrekin amets egiten dut askotan. Orbain bi ditut: bata azalekoa eta bestea barnekoa. Dena eman nion enpresa horri... eta zertarako balio izan dit? Zarama banintz bezala tratatzeko.

“Txorierriren etorkizuna? Heriotza”

Lur Maitea elkarteak 1997. urtean sortu zen, Loiu eta Derioko auzokide-talde batzuek bultzatuta. Lagun horiek aireportuaren eraikitze lanetan irregulartasunak ikusita erabaki zuten legea betetzeko eta herritarren eskubideen alde lan egiteko elkartu behar zutela. Consuelo Elosua elkarteko bozeramailearekin, Pascual Alonso presidentearekin eta Alejandro Sanz idazkariarekin mintzatu gara ekologiaz.

Lur Maitea
Elkarteak azal-
dutakoaren ara-
bera, Asuako
Carrefour ondo-
an lindane eta
hondakin toxiko
eta arriskutsuen
zabortegi bat
dago (beheko
argazkia).
Substantzia
horiek lurretik
infiltratzen dira
eta eskumako
argazkian ikus-
ten dugun bista
uzten digute.



Hondakin organikoak Asua ibaian



Txorierriko birziklatze-enpresa batek horrela biltzen ditu birziklatuko diren tresnak

Beraz, aireportuan topatu zenuten lehenengo arazoa...

Ingurumen-inpaktuko azterketarik egin barik eta indarrean zegoen legeria bete barik eraiki den aireportu bakarra da men-debalde osoan. Horrezaz gainera, hondakin toxiko eta arriskutsuen zabortegei klandestinoan duen munduko bakarra da. Eta inoiz istripurik balego, biziaren % 90 desagerraraziko luke ordu laurden batean eta kilometro bateko inguru batean. Hau guztia egiaztatzen duten hainbat dokumentu eta sententzia daude, baita Europako Batzordeak egindako diktamen bat ere. AENAREN barne-larrialdietarako planak zabortegeia eta hark sor ditzaken arriskuak aipatzen ditu, baina agintariak ez dute ezer egiten, irabazi handiak ematen dizkien negozioa delako.

Arazo horri kutsadura akustikoa gehitu behar zaio.

Guardia Zibileko Natura Babesteko Zerbitzuak egindako txostenen arabera, Erandio, Loiu, Sondika eta Derioko biztanleok 100 dezibel jasaten ditugu, batez beste. Eta baimenduta dagoen muga 65 dezibelekoa da.

Eta zein konponbide edo alternatiba emango zeniekete aireportuari?

Gizarteak aurrera egiten duen neurrian, aireportua handitu egin behar dela ulertzen dugu, baina legearen barruan egin behar da. Estatuko beste leku batzuetan ingurumen-inpaktuko azterketa egin da eta AENAK kalte-ordaina eman die kalte-tuei, pantaila akustikoak jarri ditu... Izan ere, gurera sartu nahi izanez gero, bidesaria ordaindu behar dute, ezta? Agintariak horrela eskatu beharko lukete, baina kasu honetan ere ez dute egiten.

Aireportuaz gainera, beste arazorik topatu duzue Txorierrin?

Oso espekulazio urbanistiko handia dago. Alde batetik, gaur egun eraikitzen den

*“Inoiz istripurik balego
aireportuko zabortegei
klandestinoan, biziaren
% 90 desagertuko
litzateke ordu laurden
batean eta kilometro
bateko inguru batean”*

*“Ikerketen arabera, umeak
malformazioekin
jaioko dira hiru
belaunaldiren buruan”*

lekuetan ezin izango litzateke egin, kutsadura akustikoa eta atmosferikoa direla-eta. Eta beste alde batetik, kutsatuta dauden lursailetan eraikitzen da gehienetan. Ondorioak belaunaldiz belaunaldi sufrituko ditugu...

Eta zein da iragartzen diozuen etorkizuna?

Heriotza. Ikerketen arabera, umeak malformazioekin jaioko dira hiru belaunaldiren buruan eta osasun arazo larriak izango ditugu... Aireportuan hamahiru bat hegazkin irristatu dira eta guztiek zabortegeitik metro batzuetara egin dute, zorionez. Bete-beteen asmatu balute, akabo! Lindanea eta Bhopaleko hondamendia (India, 1984) eragin zuen produktua oso antzekoak dira. Azken horrek hiru miloi pertsona hil zituen ordubeteen, eta bizirik irten zirenek nahiago lukete hilda egon.

Garapenaren ordaina da ala alternatibak bilatu behar dira?

Alternatibak beti bilatu behar dira. Aireportu bat handitu nahi badut, osasuna

eta ingurumen-inpaktua kontuan hartu beharko ditut. Eta prezioa ordaindu. Nola? Bada, familiei kalte eginez, ez. Etxebizitzak eraikitzeke lekuri ez izateak dakarren galera aireportuari kobratu beharko diot, legea betetzera behartuko ditut enpresak...

Bilboko Metropolitiko Lurralde Plan Partzialak etxebizitza eta industria gehiago ekarriko du Txorierrira. Zer pentsatzen duzue plan horren inguruan?

Izugarrikeria dela. Beno, herritarrontzat; eraikuntzak dirutza ematen dien politika-rientzat ez, noski. Txorierriko edozein lekutan eskandalizatzeko motiboa dago: lur kutsatua, trafiko handia, Asua ibaira hondakin toxikoak botatzen dituzte enpresa kimikoek... Demagun hori hamar biderrez handituta, hogeitaz biderrez, hogeita hamar...

Zein da premiazko helburua zuentzat?

Txorierrin bizi ahal izatea. Eta horretarako ikerketak egiten ditugu, epaitegietara jotzen dugu... Gure aldeko sententzia asko lortu ditugu —Asuako Pryca, aireportuko zabortegeia—, baina hor gelditzen dira, paperean. Inork ez du ezer egiten.

Pena da hainbeste esfortzuren ostean...

Ziur gaude Euskaditik kanpo kasuen % 100 irabaziko genukeena, hala ere, gurea Nunca Jamas herria da. Politika arazoarekin engainatu nahi gaituzte, baina politikariei benetan boterea eta dirua baino ez zaie interesatzen. Eta diru hori azpikerietatik eta gestio txarretatik ateratzen da.

Agenda 21 jarri da martxan...


Gobernuaren fartsa da hori. Gezur hutsa.

Ekologiaz kezkatuta dabil jendea?

Bai, baina ostrukak bezala egin nahiago izaten dugu askotan. Ekologistok politikariei sakatzea nahi du jendeak, gauzak lortuz joan gaituzela... baina horretarako, gizartearen laguntza behar dugu.

Testua: Itxaso Marina

“Gauza gehienak galdu egin dira, baliorik ez jakielako emon”



Goio Garcia hainbat arlotan ezaguna dan derioztarra da eta bere zaletasun batek, hain zuzen ere, ekarri gaitu bera-rengana. Izan ere, handik eta hemetik jasota eta ordu asko emonda, era guztie-tako erreminta zaharren bilduma egiten dabil aspalditik.

Testua eta argazkiak: Bestorrene

Noiztik zabilta biltze lanetan eta zelan otu jatzun?

Orain dala 14 edo 15 urte hasi nintzan. Baina ideia lehenagotik dator, 25 urte baino gehiago ditu. Santi Mamiko jaietan sindika-tu barruan soloko tresnen gaineko erakusketea egin genduan. Txorierriko baserrietatik ibili ginan eta gehienak botata egoaza-la konturatu nintzan, ezelako baliorik emon barik. Orduntxe sartu jatan harra, baina etxetz aldatu ginanean hasi nintzan bene-tan batzen.

Zein motatako bilduma dozu?

Nirea ez da laboratzeko tresnen bilduma, gremio ezbardinetako erreminten bilduma baino: arotzenak, errementarienak, zapata-rienak, barberuenak, jostunenak... Adibidez, azken garai hone-tan ebanisteriagaz zerikusi daben tresnakaz nabil. Danetara 600 pieza inguru izango ditut, era guztietakoak: untze txiki batetik hasita, pieza handi bateraino.

Nondik ibili zara jasotzen? Erreza da piezak aurkitzea?

Euskal Herri osotik, eta Frantziatik, Belgikatik, Castillatik, Kantabriatik... ere bai. Eta merkatu txikietan aurkitu ditudanak ez dakit nongoak izango diran. Orain dala gitxi, batek erremin-ta kutxa bat opari deust, baina gero eta gatzagoa da inork ezer

*“Gremio ezberdinetako
erreminten bilduma da
nirea: arotzenak,
errementarienak,
zapatarienak, barberuenak,
jostunenak...”*

emotea. Erremintarik gehienak erosi egin ditut hala ere, ez dira garestiak.

Pieza bategaitik 25000 pezeta izan da gehien ordaindu dodana. Bost piezek hamar mila pezeta balio dabe normalean.

Eta zelan gidatzen dozu zeure burua behar horretan?

Asko ikasten da museotara joanez, katalogoak irakurriz, liburuak erosiz, interneten bilatuz. Gehien estimatzen dozun pieza aurkitzea gehien kostatu jatzuna da.

Adibidez?

Belgikan lortu genduan lihoa txarrantxatzeko makina.

Non ikusi daiteke zure bilduma? Antzekorik badago?

Leku askotara eroan dot: Deriora, Barakaldora, Astrabuduara... Mungiako Udalak iraunkorra jartzeko eskaini deust, baina ez dot argi ikusten. Azken finean kolektzino bat da, etxean euki gura dozuna. Hori bai, bolumen handikoa. Hainbat gara zaletasun berbera dogunak, eta arazorik nagusia berbera dogu: lekua. Interneten begituta, hainbat zale ere topatu leitekez. Gero museoak ere badagoz: Arteakoa, Artzeniakakoa –hor lan handia egin dabe-, eta Nafarroako Artetan bilduma itzela dago, balio handikoa.

Zer da faltan botatzen dozuna?

Errotak ditut gustukoak –oso-, eta ez dot mundu horretako bat ere ez. Errota asko

1983. urteko urioletan galdu zan eta ez dot ezer. Beste alde batetik, Europan daben kulturea faltan botatzen dot hemen, izan ere han ez da ia ezer zaramara bota edo erretzen. Etxean garbiketa egin gura danean, normalena da merkatu txikietan (brokanteetan) postua jarri eta saltzea. Interesa daukanak erosi egiten dau. Hainbat gauza kasualitate hutsez erosi ditut holako merkatuetan. Eta soloko pieza handiak eta beste gauzaren bat kenduta, ez dot ezer Txorierrikoa. Gauzarik gehienak galdu egin dira, baliorik ez jakielako emon. Esaterako, hasieran aitatutako erakusketa-rako erabili genduzan piezarik gehienak erre edo bota egingo ziran.

*“Europan daben kultura
faltan botatzen dot
hemen, izan be han ez da
ia ezer zaramara
bota edo erretzen”*

*“Pieza bategaitik 25.000
pezeta izan da gehien
ordaindu dodana”*



Hainbat lekutatik – Euskal Herritik, Frantziatik Castillatik...– ibili da Goio antxinako tresnak batzen

Txorierriko musikari harrobia

Maiatzaren 27an, Larrabetzuko 15. Maiatza Musikalaren kontzertu nagusia ospatu zen, eta ikasle aurreratuenek, irakasleek eta musikari gonbidatuek goi mailako saioa eskaini eben bertako elizan. Kontzertu horren aurretik beste bi emon ebezan erdi mailako ikasleek eta ekainaren 9an, txikitxoek hartu eben txanda. Larrabetzu Musika Eskolak urtero antolatzen dauzan kontzertuok kurtsoan egindako lan gogorren eskaparate bihurtzen dira, maila desberdinetako ikasleen aurrerapenak eta irakasleen tajua ikus-entzuteko.

Eskolako arduraduna eta irakasleak pozik eta harro sentitzen dira –arazoak arazo, akatsak akats-, eboluzinoa oso positiboa izan dalako: hasieran piano eta akordeoi klaseak eta ikasle gitxirekin emotetik, gaur egun instrumentu gehienak irakastera pasatu dira (hari-instrumentu guztiak –biolina, biola...-, haize-instrumentuak –txistua, saxoa, klarineta eta zehar-txirula-, pianoa, akordeoia, gitarra klasikoa eta elektrikoa, perkusinoa eta abar). Eta guzti hori kalidadedun irakasle taldearen batu-tapean. Hortik aparte, gaurko hezkuntza legeek (LOGSE) agindu aurretik be, jorratzen hasi ziran eta jorratzen dabez taldeakoko lanak be (musika korala eta kamara orkestra).

Eta erakutsi eben hori guztiori kalidadezko kontzertua eskainiz: lau eskutara jota pianoagaz hasi zan (A. Simal eta B. Gorrotxategi), hirukote harmoniotsuagaz jarraitu (A. Etxeburu-txirula, E. Gomez-biola eta A. Simal-pianoa) eta boskoteagaz heldu zan erdialdera, “blues” antzeko musika gustagarria interpretatuz (O. Sabando-txirula, N. Lopez-klarineta, A. Artetxe-gitarra, A. Garamendi-pianoa eta O. Andollo-bateria). Kontzertuaren bigarren zatian musikari talde zabalagoak izan ziran protagonista: Larrabetzu Kamara Orkestra (Eva Gomezen zuzendaritzapean) eta Izar Argia ahots zurien Abesbatza (Ander Simal zuzendari dala).

“Etorkizun parebakoaren ate aurrean gagozala uste dogu, musikak gero eta inportantzi handiagoa eukiko dauhalako danon bizitzan eta guk, horren alde, geure bokazinoari eutsiko deutsogu: Lezama



*“Larrabetzu Musika
Eskola Txorierriko
musikari harrobia izan
gura dogu”*

pelotari harrobia konsideratzen danez, Larrabetzu Musika Eskola Txorierriko musikari harrobia izan gura dogu eta horretan jarraitu gura dogu” dino Iratze De Cavia musika irakasleak.

Eta, kontzertu amaieran, ondo egindako beharrak emoten dauan postazunak eraginda, antolatzaileek banatu ebezan eskerrak handik eta hortik. Eskerronagaz batera, aldarrikapenak be izan eban bere

lekua. “Etorkizunari begira, musikaren alde lan egitea tokatzen jaku, planifikazioak eginez, arazoak aztertuz, diru-laguntzak emanez..., soli esanez musikea garrantzitsua dala danontzat, ez dala kapritxo hutsa, danon laguntza kontzientzia behar dula, batez be administrazio publikoarena. Guk galdera bat itxiko dogu airean danon erreflexiorako, eliza honen bibrazi-noekaz ea etxe guztietara heltzen dan, ia udal-mankomunitate-diputazio eta gobernuetara heltzen dan: egingo ete dogu danon artean Txorierriko kontserbatorio publikoa?”, esan eban Tere Loroño eskolako zuzendariak.

Testua: Pospolin

Argazkia: Larrabetzu Musika Eskola

Bizkaiko Foruen Zin bidea

Foruak Bizkaiko Jaurerriaren legedia ziran eta mende-etan zehar bizkaitarrek izandako legeak, usadioak eta ohiturak batzen ebezan. Foruen lehenengo bilduma idatzia 1452. urteko Foru Zaharra da eta hurrengoa 1526. urteko Foru Barria. Jaunak Foruak zin egin behar ebazan Bizkaiko Jauntzat onartua izateko. Zin egitea Bilbon, Larrabetzun, Gernikan eta Bermeon izaten zan.

Bizkaiko Jaunak egin behar eban zin bidea Foru Barrian azaltzen zan. Lehenengo eta behin, Bilbora joan eta alkatearen eta erregimentuaren aurrean hurrengo berba honeek bota behar zituan: “Nik, Bizkaiko Jaunak, zin egiten dot zaindu, gorde eta gordeazo egingo ditudala bizkaitarren askatasun, eskubide, usadio eta ohiturak, bardin Lur-Edegikoak zein uri eta uribilduetakoak, zein Enkarterri eta Durangaldekoak, orain arte lez izan dabe-

zan moduan, euren borondatea horixe data”.

Handik Larrabetzuraino abiatu, eta Goikolexeako San Emeterio eta Zeledonio eleizan juramentua errepikatu behar eban abadearen aurrean. Abadeak Kristoren Gorputz sakratua eskuetan eusten eban bitartean. Bizkaiko Jaunak Gernikarako bidea hartzen eban eta bizkaitarrak bere bila ateratzen ziran Aretzabalagan. Eta eskuan musua emo-

ten eutsien, errege eta jauntzat onartuz.

Gernikako Arbolaren azpian Foruen zina egin ostean, Bermeora joaten zan eta Santa Eufemia eleizako aldarean eskua jarrita, juramentua errepikatzen eban abadearen aurrean. Abade horrek be Kristoren Gorputz sakratua eusten eban eskuetan.

Zin egitearen zeremonia

Bizkaiko Jaunak ezkerreko oinetakoa erantzi behar eban. Horrela, bere autoritatea kentzen jakon eta juramentua egin ostean emongo eutsien barriro. Gernikako Arbola-ren enborraren kontra gezia jaurti eta Bizkaiko Foruak defendituko zituala zin egiten eban. Eskumuinak amaiera emoten eutsan zeremoniari, eta herriko ordezkariak Jauntzat onartzen eben bertan. Halanda be, Errege-Erregina Katolikoen erregealditik aurrera zeremonia hori ez da egin, ez dalako Foru Barrian azaltzen.

“Crónica de los reyes de Castilla. Crónica de Enrique III”. Pedro Lopez de Aiala, 1992

Erregea Bilbotik alde egin eta “llegó a una sierra que dicen en Vasquence Arechabalaga, (...) e allí falló a los Vizcainos Fijosdalgo (...). E en otra parte falló muchas Compañías que se llamaban la Hermandad de Vizcaya (...). E todos en uno le pidieron que les confirmase e jurase sus buenos usos e buenas costumbres (...)”. Bizkaiko Ermandadekoek ez ebela Bizkaiko Jauntzat onartzen esan eutsien, ez zitualako Foruak zin egin. Eta aurreko urteetako errentak ez eutseziala emongo.

Goikolexeako elizan kontserbatzen dau mahai honetan zin egiten ebazan Bizkaiko Jaunek Foruak



Sukaldaritza

Zizaz eta ganbaz beteriko piperrak


Osagaiak (6 lagunentzako):

Pikillo piper-lata bat
200 g. ganba
100 g. ziza
8 berakatz ale
2 kipula
2 azenario
2 cl esnegain
2 laranjaren zukua
Gatza
Oliba olio
200 cl esne
Irina (zopa-koilarakada bat)

Prestatzeko era:

Zartagin batean berakatzak gorritu (olio

Leke's jatetxea Zamudion



apur batekin), eta ganbak eta zizak (txikituta) botako ditugu. Biguntzen direnean esnea eta irina (irabiatuta) gehituko ditugu. Gatza bota, eta egosten utziko dugu bost minutuan. Ondoren, bandeja batean utziko dugu hozten. (Bezperan egiten bada, hobeto)

Saltsa: Kipula eta azenarioak txikitu, eta olio apur bat erabilita, frijitzen ipiniko ditugu. Biguntzen direnean zukua, esnegaina eta gatz apur bat bota, eta dena ondo irabiatuko dugu saltsa fin-fina lortu arte. Lodi gelditzen bada, esne apur bat gehituko dugu.

Zizaz eta ganbaz piperrak bete, eta saltsa gainetik botako dugu. On egin!

LIBURUAK

NAGUSIEN SAILA

Bakartasunaz bi hitz

Filipe Bidart

Orain galdera berriak ditut

Lander Garro

Atzoko eta gaurko harresiak

Asier Blas Mendoza

Arbelaren gainean

Xabier Mendiguren Elizegi

Zirkulua

Andoni Urzelai

HAUR ETA GAZTE SAILA

Lapurren burua

Cornelia Funke

Maitasuna besterik ez: Sandrak Meike maite du

Marliese Arold

Aire beltza

Agustín Fernández Paz

Palestina, zure mina

Begoña Bilbao

Harribeltzeta nire gogoan

Joseba Aurkenerena Barandiaran

KONTZERTUAK

01/07 Triki ta ke. Sopela

02/07 Karidadeko benta. So-
puerta

07/07 Morau ta agotak. Elorrio

08/07 Four friends. Lekeitio

16/07 Aterkings. Markina

20/07 Oskorri / Kukubiltxo. *Dok-
tor do re mi...* Amorebieta-Etxa-
no

29/07 Benito Lertxundi. Bakio

DENBORA PASA


LETRAZOPA

T	A	F	I	U	X	T	N	A	G	A	F	I
B	X	H	A	G	K	J	O	E	D	K	P	A
N	P	I	L	D	M	A	T	H	S	I	A	Ñ
U	J	T	S	P	G	R	E	R	D	T	N	A
R	K	B	L	P	Ñ	E	U	N	P	J	I	S
R	R	L	F	D	A	H	E	X	B	R	D	G
U	B	N	B	M	R	M	I	L	J	F	N	N
S	X	D	O	Z	A	U	E	X	A	T	E	A
T	S	A	N	R	O	K	E	N	L	K	M	H
I	B	J	R	S	I	D	Ñ	O	D	N	O	I
M	G	E	U	H	B	O	F	E	S	I	Ñ	Z
O	P	S	D	U	M	P	G	U	M	T	A	E
Z	K	A	N	T	O	I	B	A	S	O	D	K

G	B	O	E	B	F	D	I	J	E	B	N	U
E	A	G	O	F	J	G	K	B	M	G	O	H
S	R	Z	H	K	P	D	M	S	F	Y	E	I
M	A	N	T	U	L	I	Z	K	N	B	L	N
I	P	F	U	E	M	F	P	H	D	R	F	D
G	D	L	G	N	L	R	L	A	X	F	A	L
R	I	N	F	X	N	U	U	G	B	K	Z	H
A	L	G	J	E	H	S	M	A	K	M	T	J
K	R	B	H	I	L	J	O	E	M	I	R	R
Z	D	S	E	T	F	D	P	R	N	Z	A	D
I	M	G	Y	F	Z	T	T	R	Z	D	Z	P
B	S	U	L	A	Ñ	A	M	E	N	D	I	J
B	G	E	N	O	F	P	I	B	O	G	E	M

Aurki itzazu goiko letra-
zopan **Txorierriko 7**
mendi izenak. Erantzuna
jakin nahi baduzu hurren-
go aldizkarian agertuko da.

Ezkerraldean Aikor! 38.
zenbakiaren letrazoparen
erantzuna. Txorierriko 7
mendi izen.



Agenda

Antzerkia eta filmak

Sondika. *Autobus de Paz y Humor*, Macrea taldearen eskutik. Uztailaren 17an, 12:30ean, Kultur Etxean.

Dantza ikuskizunak

Sondika. Hegoafrika, Futuna eta Gorantzaileak dantza taldeak. Uztailaren 22an, 22:30ean, Goronda Beko udal kiroldegian.

Derio. Pendzsom Hungariako taldea. Uztailaren 31n, 12:00etan, Aldekone auzoan.



Erakusketak

Sondika. Sondikako Kale Pinturaren XI. Lehiaketako lan sarituak eta saritu gabeen hautaketa bat. Uztailaren 1etik 13ra, Erakusketa Aretoan.

Irteerak

Zamudio. Biarritz, uztailaren 33tik 24ra. Vall d'Aran, Arroeta mendi taldeak antolatuta. Uztailaren 1etik 4ra.

Lezama. Marcadau bailara, Gailur mendi taldeak antolatuta. Uztailaren 23tik 25era.

Larrun mendia, Adintsuen Elkartek antolatuta. Uztailaren 25ean.

Jaiak

Derio. Santiago eta San Inazio jaiak Aldekone auzoan. Uztailaren 24tik 31ra.

Lezama. Goitioltzako jaiak, uztailaren 9an eta 10ean.

Kirola

Sondika. Futbol Kanpusa, ekainaren 27tik uztailaren 8ra. Antolatzaileak: Bizia KTC, CD Sondika eta Sondika eta Lezamako Udalak.



Udalekuak

Sondika. Ekainaren 27tik uztailaren 22ra: multikirola, mini-golfa...

Loiu. Uztail osoan: jolas tematikoak, kirola...

Derio. Uztailaren 5etik 22ra: irteerak, jolasak...

Zamudio. Uztailaren 1etik 29ra: komunikazio jokoak, olinpiadak...

Lezama. Uztailaren 5etatik 22ra: tailerrak, irteerak...

Larrabetzu. Uztailaren 5etik 22ra: jolasak, tailerrak...